ataria

Jorge Malcorra: sentimendu abstraktuak

1979ko hauteskundeak

Lau hamarkada bete dira, aurten, bigarren errepublika ondorengo lehen hauteskundeez geroztik; orduko ordezkariak omenaldiak jasotzen ari dira egunotan

2019-05-24
1.062 zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus

	ATARIKIDEAK	BESTEAK
KATILUA	8 EURO	10 EURO
BOLIGRAFOA + KOADERNOA	4 EURO	6 EURO
BOLIGRAFOA + KOADERNOA + KATILUA	10 EURO	14 EURO

ESKURATU ZUREA ATARIAREN BULEGOAN
SAN ESTEBAN 20, TOLOSA

Iran LGTB

Irango Errepublika Islamdarrean transexualitatea erabat onartuta dago, edo hala diote. Thailandiaren ondoren, sexu aldaketa ebakuntza gehien dituen herrialdea da. Gobernuak berak ordaintzen omen ditu gastuak. Homosexualitatea, ordea, heriotzarekin zigortua izan liteke zenbait kasutan.

Arratsaldeko laurak izango ziren, Teherango kafetegi txiki elegante batean Aram ezagutu nuenean. Berak ez zekien ingelesez, eta nik pare bat hitz besterik ez farsiz. Mobila eskuetan, itzultzailearekin prest genuela hasi zitzaidan, 19 urteko neska irandar alai eta irribarretsu hura, bere bizitzaren historia kontatzen.

«Ni, zu ez bezala, akats batekin jaio nintzen. Genital maskulinoak ditut, eta emakumea naiz...». Tristuraz bete zitzaidan barrena «akats» hitza entzun nuenean, baina, tamalez, Iranen transexualitatea sendatu beharreko gaixotasun bat bezala ulertzen da.

«Oso txikia nintzen, soinekoak jantziz eta beste mila bidetatik, nire familiari neska nintzela adierazi nionean. Orduz geroztik aitonak ez nau batere gogoko, gaur egun ez dit hitz egiten. Gobernuak inposaturiko transexualitateari buruzko legeak jarraitu nahiko banitu, psikologoarengana joan beharko nuke lehenik , berak gaixo nagoela ziurtatzeko, eta sexu aldaketa ebakuntza egin ondoren. Nik ez dut nahi, ordea, gustura sentitzen naiz horrela.

Thailandiaren ondoren, sexu ebakuntza gehien egiten dituen herrialdea da. (...) Homosexualitatea, ordea, heriotzarekin zigortua izan liteke.

Naizen bezala onartua izan nahiko nuke, besterik ez, guztiok gara pertsonak. Ebakuntza ez da aukera bat, inposaketa bat baizik. Ez da egia transizio guztia gobernuak ordaintzen duenik; diru kopuru txiki bat besterik ez du eskaintzen laguntza moduan, eta oso garestia da».

URA ITURRALDE
ARGAZKILARIA

Hurrengo egunean, Aram-ek bere etxera gonbidatu ninduen bazkaltzera, bere familiarekin. Sartu orduko ezagutu nuen Mamam Caty, amona. Sukaldari trebea, pertsiar plater desberdinak eskaini zizkidan dastatzeko. Ama, amona, Aram eta ni mahai inguruan; aitonak, ordea, hitzik esan gabe alde egin zuen sukaldetik, ni iritsi nintzenean. Solasaldi polita izan genuen mimika erabiliz, oztopoen gainetik elkar ulertuz.

Bazkal ostean iritsi zen Maryam, Aramen lagun mina, ni ezagutzeko asmoz.

«Aram-ek duen akats berarekin jaio nintzen ni. Genital femeninoekin jaio, eta mutila naiz». Bigarren aldiz bihotza hautsi zitzaidan, «akats» hitza entzutean.

«Nik ez nuen nahi, baina nire familiak psikologoarengana joatera behartu nau. Ez dut ebakuntzarik nahi, eta erabakitzeko aske izan nahiko nuke. Zaila ikusten dut, islamdar legea jarraitzen duen herrialde honetan. Agian noizbait gobernua aldatuko da, edo beste herrialde batean bizitzeko aukera izango dut, ez dakit. Hemen eta orain, ni ez naiz zoriontsu. Aldaketaren zain bizi gara. Ezin dugu protestarik antolatu ere egin, poliziak atxilotu egingo gintuzke. Ez da erraza».

Gaia buruan bueltaka nuen bitartean, oinez iritsi nintzen nire logelara, arratsalde amaieran. Entzun eta ikusitakoa nire koaderno txikian idatzi ondoren, nekatuta, ohean loak hartu ninduen.

Transexualitatea hain gogorra baldin bada, nolakoa da homosexualitatea Iranen?

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeka Calvo Gonzalez
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizalete **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 41 00 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

tolosaldeko ataria

TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:
BERTAKO HEDABIDEAK · galtzaundi · berria · Txolarre · bai euskarari · Bikain
Tolosaldeko gizarte eragileak

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Jorge Malcorra

www.ataria.eus · 107.6 fm
2019ko maiatzaren 24a

Otsaileko osoko bilkurako irudi bat; maiatzean ere desadostasunak izan dira bi aldeen artean. J. A.

Alondegiko zati bat Gipuzkoako Foru Aldundiari utzi dio udalak

Maiatzeko osoko bilkuran, udal langileen ordainsariak igotzea eta diru-laguntzen ordenantza aldatzea ere onartu zuten

Josu Artutxa Dorronsoro

Tolosako Udalak pasa den astean egin zuen, udal hauteskundeen aurreko azken osoko bilkura. Batetik, Tolosako Hiri Ordenantzako Plan Orokorreko 12.1 Azpiesparruan (Alondegia) dagoen lurzoru zati baten erabilera eta jabetza, Gipuzkoako Foru Aldundiari uztea onartu zuten, aho batez, adineko pertsonei egoitza-harrerako zerbitzu zabalagoa eskaintzeko.

Gauzak horrela, Uzturre zentroaren bitartez, menpekotasun egoeran dauden adineko pertsonei ematen dieten zerbitzua areagotuko da eta, bertan, handitzeko lanak egingo dituzte. 120 plaza eskainiko dituzte: banakako 116 logela eta bi pertsonarentzako 2 logela. Eskaintzen dituzten zerbitzuak berrantolatu eta arreta eta kudeaketa egokia egiteko zabalduko dute egoitza. Zati berrian, orain 5. solairuan dauden psikogeriatriako 16 plaza egongo dira.

Proposamen hori, ordea, ez zen aho batez onartu, gehiengo zabalarekin baizik, udal gobernua osatzen duten ordezkarien baiezkoarekin. Alkateak nabarmendu zuen, «adinekoen beharrak asetzeko baliabideen sorrera herritarren interesekoa» dela eta «horrela, arreta Tolosan bertan jasotzea bermatzen dela». Foru aldundiarekin adostutako hitzarmenaren arabera, lagapen epea amaitzean, esleitutako ondasuna osorik berreskuratuko du udalak, inolako kalterik gabe. Epe hori aldez aurretik amaituz gero, udalak ez du inongo erantzukizunik izango.

Ibai Iriarte zinegotziak, EH Bilduren izenean, «prozesuaren formetan adostasunik ez egotea eta foru aldundiaren aldetik informazio falta izatea» salatu zuen. «Erabakiak hartzeko presaka aritu zarete, gaiak jorratzeko astia behar zuenean. Kudeaketa publikoko zerbitzuak eskatuko ditugu, eta hauek sustatzea eskatu. Hori dela eta, Iurreamendin jarri behar ditugu indarrak».

Alkateak, oposizioko ordezkariari erantzunez, «publiko-pribatu osagarritasuna egoki» ikusten dutela eta, «kokapenagatik, Uzturre egoitzak eskaintzen dituen zerbitzuak hobeak» direla azaldu zuen: «Gainera, itxaron zerrendatik, %85ek eskatu dute bertan egotea. Erabiltzailea, beraz, aurretik jartzen dugu». Inolako eragozpenik ez zegoenez, erronkari aurre egin behar zitzaiola ere azaldu zuen. Azkenik, Iriartek, prozedura juridiko-legala bermatu arren, kezka adierazi zion udal gobernuari: «Iurreamendiren etorkizuna non eta nola uzten duen beldurtzen nau». Ondorioz, oposizioko kideek aurka bozkatu zuten.

Ordainsariak eta diru-laguntzak

Horrez guztiaz gain, udal langileen eta erabateko dedikazioarekin edo dedikazio partzialarekin aritzen diren kideen ordainsarien %2,25eko igoera ere aho batez onartu zuten.

Bestetik, hizpide izan zuten, gizarte zerbitzuen eta nazioarteko lankidetzaren alorreko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza aldaketaren hasierako onarpena. Alkateak azaldu zuenez, hutsuneak antzeman ondoren, balorazio irizpideak berrikusi eta justifikazio prozedura eguneratu da. Bi ordenantzak bakar batean bateratu zituzten. «Ordenantza Tolosako errealitateari eta beharrei egokitzea da helburua», azaldu zuen Peonek. «Taldeek herrian antolatzen dituzten ekintzak sustatu nahi ditugu, herriarengan eragin positiboa dutelako». EH Bildutik, «txostena esku artean izateagatik» eskerrak eman zizkieten. Hala ere, gaztelaera hutsean erredaktatuta zegoela eta, «euskaraz ere izatea» eskertuko luketela gogorarazi zuten.

Azkenik, auzo elkarteek Hiribusaren inguruko idatzi bat aurkeztu zuten, alderdien iritzia jaso nahian. «Herritar ugarik erabiltzen duten zerbitzuak gorabehera ugari izan ditu azken boladan. Udalaren jarrera ez da oso txukuna izan, ezin baita ahaztu ardura berea dela». PSEtik «beharrezko kalitatea bermatuko duen zerbitzua» defendatuko dutela azaldu zuten. EH Bildutik, berriz, «orain arteko eragozpenak ekiditea bermatuko duen kudeaketa publiko bat» nahi dutela. EAJtik, berriz, azken aldian izandako arazoak gaindituta daudela gogorarazi zuten: «Kasu berezia da gurea. Hiribus bakarra dugu, eta 20.000 biztanle gara. Efizientziaren baldintza betetzen ez bada, ezin da udalarena izatera pasatu».

Apeaderoaren inguruko azalpenak eskatu dituzte

Eguzki taldeak Tolosako tren geltokian gabezia ugari atzeman dituela jakinarazi die alderdiei, hauteskunde atarian

Erredakzioa

Hauteskunde kanpaina amaitzeko oso gutxi geratzen denean, Eguzki taldeak Tolosako apeaderoaren erabiltzaileek pairatzen dituzten arriskuen eta irisgarritasun gabezien inguruko proposamenik jaso ez izanaren «zoritxarra» azaldu du. «Nasaren eta trenaren arteko aldea 50 zentimetrokoa da. Oso arriskutsua da igotzea eta jaistea. Hori, ordea, ez da arazo bakarra, nasetara iristeko ere 24 eskailera-maila igo edo jaitsi behar direlako».

Egoera hori salatzen eta igogailuak jar ditzatela eskatzen jarraitzen dute. Izan ere, 2014an, arazoak konpontzeko proiektu bat onartu bazen ere, ez zen gauzatu. «Egunero mila pertsonak erabiltzen dute eta, Gipuzkoan gehien erabiltzen diren geltokien artean, seigarrena da. Hori dela eta, udalari neurriak hartzeko eskatzen diogu».

Alegian ere neurriak hartzen

Alegian, berriz, herritarren eskaerei erantzunez, geltokian segurtasuna hobetzeko neurriak hartu dituzte. Trenbidea gurutzatzea errazten duen ispilu bat jarri dute, baita pasabidean zain egoteko eremu bat margotu ere, isipilua ikusteko lekurik onena zehaztuz.

GUTUNAK

Osasunari buruzko EAJren proposamenen inguruko balorazioa

Igandean berri harrigarri batekin gosaldu genuen: Tolosaldeako EAJ Ospitale Publiko bat egitearen alde azaldu da eta erraztasunak emango dizkio Osasun Sailari. Berri pozgarri bat eskualdeko herritarrentzat.

Hortik aurrera zalantzak besterik ez zaizkigu agertzen. Izan ere, orain arte ospitale publiko bat egitearen aurka azaldu izan dira. Are gehiago, osasun mahaia osatzearen aurka ere azaldu izan dira, orain dugun osasun arreta eredu publiko-pribatua defendatuz.

Iritzi aldaketa hau zerk eragin duen jakin nahiko genuke. Susmoa dugu, hauteskundeen gertutasunak eta EH Bilduren proposamen eta lanketak zerikusi zuzena dutela. Lehen aipatutako kontrako jarrerak eta hauteskunde programan honi buruz ezer ez azaltzeak horretara eramaten gaitu. Proposamen elektoralista eta hipokrita iruditzen zaigu.

Hori alde batera utzita, planaren xehetasun ezak larritzen gaitu erabat. Zehazki, klinikako langileoi zuzenki eragiten digunez, gure etorkizuna zein izango den ez aipatzeak. Zer gertatuko da Asuncion klinikarekin? Zer zerbitzu emango dira bertan? Zer gertatuko da langileokin? EH Bilduk aurkeztutako plan estrategikoan langileon etorkizuna bermatzen zaigu, ospitale berrirako integrazio prozesu baten bidez; EAJren planean ez gaituzte aipatu ere egiten.

Azkenik, EH Bilduk egindako proposamena osasun eragileekin (TOPA), sindikatuekin (ELA, LAB), lehen arretako langileekin eta Asuncion klinikako langile batzordearekin eginiko lanketa baten ondorio da. Norekin adostu du EAJk plan hau? Nor izan du kontutan?

Hasieran esan bezela, Tolosaldeko osasun arretaren erabiltzaile eta langile bezala, ongietorria da EAJren ideia, ongietorriak dira gehiengoaren iritzietara. Hori bai, planaren definizioa, eta eragileekin egin beharreko lanketaren falta sumatu dugu, eta neurri elektoralistatzat hartzen dugu, zalantzarik gabe.

Asuncion klinikako LAB–eko ordezkariak

Diru-laguntzei buruzko saio informatiboa, Lehiberrin

Tolosa. Tolosaldea Garatzenek, *2019 diru-laguntza* argitaratu dutela jakinarazten du. Dokumentuen hartu emana elektronikoki egiteko beharrari, onurei, irtenbideei eta laguntzei buruzko saio informatiboa antolatu dute. Asteazkenean (10:00-12:00) izango da, Lehiberrin. Izena emateko, 943 65 45 01 telefonora deitu edo *lehiberri@tolosaldea.eus* helbidera idatzi behar da, astelehena baino lehen.

Udaberri dantza taldeko haurren emanaldia, igandean

Tolosa. Igande goizean, Udaberri dantza taldeko ikastaroetan aritu diren haurrek, urtean zehar ikasitako dantzak herritarrei eskaintzeko aukera izango dute, Leidorren, 12:30ean hasiko den saioan. Aurtengo gaia Korrika izango da, eta *Ttipi-ttapa* izena du emanaldiak. Sarrerak gaur (19:30-20:00) eta bihar (18:30-19:00 eta 21:30-22:00) egongo dira salgai, Leidorreko leihatilan, 4 euroren truke.

www.ataria.eus · 107.6 fm
2019ko maiatzaren 24a

Asteazken arratsaldean Asteasuko plazan, Nekane Libre plataformak deitutako elkarretaratzean batu ziren herritarrak. J. M.

Txapartegi berriz arriskuan

Audientzia Nazionalaren aginduz, Espainian ireki dioten kasu batengatik deitu diote Bernara, baina ez du deklaratu

Jon Miranda

Espainiako Audientzia Nazionalak bideokonferentziaz deklaratzera deitu zuenn asteazkeneann asteasuarran Bernako (Suitza) epaitegira. Deklaratzeari uko eginn eta tortura sexista eta euskal gatazka internazionalizatzeko erabakia hartu du Txapartegik.

Atxilotzeko arriskua ekiditeko gerturatu zen asteasuarra, herenegun, 10:30ean, Bernako epaitegira, nahiz eta aurrez erabakita zuen, ez zuela deklaratuko Espainiako Auzitegi Nazionalaren aurrean. Txapartegik esana duen bezala, «torturapean egindako deklarazioetan oinarrituta eraiki duten akusazioari erantzutea, akusazio hori legitimoa dela onartzea baita». Kausa berri bat eraiki dio auzitegiak, nahiz eta, bere gertukoek adierazi dutenez, «aurretik izan zuenarekin lotuta dagoen». Asteazkenean Txapartegik ezin izan zuen bideokonferentzia egin zen aretora sartu, eta Suitzan duen Olivier Peter abokatuak eman zion, Espainiako epaimahaiari, erabakiaren berri. «Haserre» hartu zutela azaldu dute iheslari politikoaren senideek: «Auzitegi Nazionaleko fiskalak esan zuen ez duela onartzen abokatu suitzar bat Nekane ordezkatzen egotea».

Libre, eta Espainiako Auzitegi Nazionalak zein pauso ematen dituen zain geratu da Txapartegi. «Ez dakigu zenbat denbora pasa daitekeen», esan dute bere gertukoek: «Baina berriz ere arrisku egoeran dago, bere askatasuna eta bere bizitza kolokan, baldintzatuta eta zain». Tolosaldea osoko herritarrak bertaratu ziren, asteazkenean, Nekane Libre plataformak deituta, Asteasun antolatutako elkarretaratzera. Eskualdeko mugimendu feministako kideek ere parte hartu zuten, tortura matxisten aurkako lelo eta «nik sinesten dizut» bezalako aldarriekin.

Suitzan elkartasun uholdea

Asteazkenean Zurichetik Bernara, epaitegi atarira, 200 lagun inguru gerturatu ziren, babesa eta elkartasuna adieraztera. Mugimendu handia sortzen ari da Suitzan, Txapartegiren inguruan, eta Espainiako estatuak egiten dituen eskaerak ukatzera behartu nahi dute hango gobernua, torturapean oinarritutako akusazioekin lotuta dagoelako kausa berria ere.

«Lehen, nahi ninduten eta ez zuten lortu, eta orain eraikiko dituzte beste akusazioak, horretarako nazioarteko legedia puskatu behar badute ere», esan du Txapartegik Hala Bedi irratiari egindako adierazpenetan: «Hemen, Suitzan, jendeak ez du ulertzen nola den posible Espainiako estatuak horrelako jarrera edukitzea, baina ezaguna dugu hauen atzean dagoen pentsamolde kolonizatzaile eta inkisidorea. Ni bezalako figurak, sorginak, behar dituzte euren aparatu zapaltzaile hori iraunarazteko eta legitimatzeko. Bestela, nola ulertzen da, borroka armaturik egon gabe, legedia antiterrorista eta inkomunikazioa iraunaraztea?».

Iheslari asteasuarraren esanetan, torturaren gaiarekin posizionatu beharko du Suitzako gobernuak. Asilo politikoa eskatua du han, baina ukatu egin izan diote; bere ustetan kausa berri hau zabaltzea jazarpen politikoaren froga berri bat da, eta erakusten du nahikoa arrazoi badagoela asilo politikoa emateko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Nafarroako gobernuko ordezkariak, artxiboko arduradunekin. J.M.

TRANSports erakusketa Tolosan

Gipuzkoako Artxibo Orokorrean jarri dute, ekainaren 1era bitarte, eta zortzi kirol diziplinaren jatorria erakusten du

J.M.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Pirinio Atlantikoetako eta Nafarroako gobernuen eta Huescako Diputazioaren arteko lankidetzari esker sortu da erakusketa ibiltaria. Paueko Departamentuaren Artxiboan, Baionakoan, Donostiako Pio Baroja udal kiroldegian eta Elgoibarkoan, eta, Oñatin, Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan izan da, orain arte, erakusketa. Tolosan ekainaren 1a bitarte izango da ikusgai, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan, berriz, goizetan bakarrik.

Erakusketa argazki panelez, testu dokumentuz eta filmez osatuta dago, eta artxiboetan gordeta dauden dokumentu originalak ikusteko aukera ere eskaintzen du. Zortzi kirolen sorrera azaltzen du erakusketak. Hain zuzen, giza trakzioa esfortzu fisiko gisa baloratzeari ekin, eta kirol erronkarako bide eman zezakeela ikusi zenekoa; ordura arte nekazaritzarako soilik erabili zen animalia, trakzioa hipodromoetan txalotua izatera igaro zenean. Eta, trakzio mekanikoa ere, garraiorako aurrerapen teknologiko izatetik, abiadura, abilezia eta dotoretasuna jokoan jartzen dituen ikuskizun izatera pasatu zenean. Metamorfosi horiek guztiek kontatzen dute, halaber, zer bilakaera izan zuen gizarteak berak, XIX. mendetik XX. mendearen lehenengo erdialdera.

Nafarroako Artxiboaren eta Pirinio Atlantikoetako departamentuaren Artxiboak 2016an abiarazitako lankidetzaren esparruan sortu zen, erakusketa hau egiteko proiektua. Lankidetza horren xede nagusia zen, artxiboetan gordeta dagoen ondare dokumentala hedatzeko eta hari balioa emateko kultur bitartekaritzako egitasmoak abian jartzea. 2018an, lankidetza hori inguruko lurraldeetara zabaldu zuten, parte hartzeko gonbidapena eginez Gipuzkoako Foru Aldundiari, Huescako Probintziako Diputazioaren Artxiboari eta Fototekari, eta Huescako Probintziako Artxibo Historikoari.

Mikel Diez Sarasola Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura zuzendari izan da erakusketaren irekiera ekitaldian, eta «oso pozik» agertu da, erakundeen arteko elkarlan hori gauzatu delako. Herritarrak animatu ditu erakusketa bisita dezaten: «Lau lurraldeetako artxiboek ondare dokumental bat erakusten dute, bai testuzkoa, bai ikonografikoa eta bai ikus-entzunezkoa». Egunotan, honenbestez, automobilismoari, abiazioari, atletismoari, arraunari, eskiari, txirrindularitzari, mendizaletasunari eta hipikari buruzko dokumentu eta irudiak ikusi ahal izango dira Tolosan.

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

ataria n jarrita Goierriko eta Urola Kostako Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Osteguneta 16:00ak arte hartzen ditugu

www.ataria.eus · 107.6 fm
2019ko maiatzaren 24a

Emkaumeen Plazan egin zuten agerraldia, Tolosako EH Bilduren zerrendako emakumeek. I. SAIZAR

EH Bilduk berdintasuna arlo guztietan landuko du

Emakumeen Etxea martxan jartzea indargunea da Tolosako EH Bildurentzat; herritarren prestakuntza beharrezkotzat jo dute

I. Saizar Artola

Tolosako EH Bilduko emakumeek agerraldia egin zuten, asteazkenean, udal hauteskundeen harira, berdintasuna nola jorratuko duten azaltzeko. «Matxismoarekin amaitzea, mugak ezabatzea eta norberak bere ni-a askatasunez bizitzea» funtsezko jo zituen Olatz Artola hautagaiak.

Feminismoaren garrantziaz aritu zen Artola: «Indarra herritik nahiz udaletik eginda, feministen bidea erraztea eta Tolosa berdinzalea izatea dugu helburu». Programa osatzerakoan esparru guztietan feminismoa zeharkakotasunez landu dutela azaldu zuen; besteak beste, gobernantza, enplegua eta sozioekonomia, politika sozialak, aurrekontu eta zerga politikak, kultura, kirola, hezkuntza, hirigintza, sexu-aniztasuna eta feminismoan.

Azken urteetan Tolosaldeko Asamblada Feministak hartu duen indarraren eta gorakadaren bozgorailu izan nahi du EH Bilduk. Hortik, Emakumeen Etxea eraiki eta martxan jartzea izango da proiektu nagusienetako bat. «EH Bilduk bide horretan eman behar diren ondorengo urratsetan laguntzeko konpromisoa hartu du».

Egin dituzten proposamen guztiak aurrera eraman ahal izateko, beharbeharrezkoa ikusten dute Tolosako herritar guztien prestakuntza.

«Orain arte bezala lan egiten» jarraituko du EAJk

Erredakzioa

Gobernanatza ereduaren berri eman zuen, atzoko agerraldian, Tolosako EAJk. Olatz Peon alkategaiak hartu zuen hitza, eta orain arte bezala lan egiten jarraitzeko konpromiso irmoa erakutsi zuen, «kudeaketa onean oinarrituta, gertutasunetik, gardentasunez eta, tolosarrekin zein herriko elkarte eta eragileekin, elkarlanean jardunez».

Ezinbestekoa da, Peonentzat, «tolosarrengatik gertu» egotea: «Parte hartze prozesuak udaleko egunerokoan barneratuak izan daitezen, parte hartze digitala sustatu eta informazio kanal pertsonalizatuak landuko ditugu».

Beste hainbat proposamen ere egin zituen: «Herritarren arreta zerbitzua indartzea, Udate app-a mugikorretara egokitzea, webgunetik erreserbatzeko sistema ezartzea eta telematikoki egin daitezkeen tramiteak areagotzea».

Boto zuriak eskatu dituzte, Berrobin eta Larraulen

Herritar anonimo batzuk etxez etxe gutunak banatu dituzte Larraulen; Berrobin, berriz, sare sozialetan mezuak zabaldu dira

Erredakzioa

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetara hautagaitza bakarra aurkeztu da Larraulen eta Berrobin: PSE-EE. Horren aurrean, boto zuria eskatu dute hainbat herritar anonimok, bi herrietan.

Larraulen, gutun bat zabaldu dute postontzietan, etxez etxe, herritar anonimo batzuk. Boto zuria bozkatzeko eskatu dute eta, bide batez, hurrengo hilabeteetan herriaren kudeaketaren inguruko eztabaidan parte hartzeko gonbita ere egin dute. Idatzian aipatzen denez, «zerrenda horretan ez dago herrian bizi den inor».

Legearen arabera, herritarrek bozketaren egunean zein aukera dituzten jakiteko galdera formala egin dute udalean, eta honakoa erantzun dute: «Legearen arabera, aurkeztu den zerrenda bakarrak udala gobernatzeko boto baliagarrien %5 atera behar ditu, gutxienez. Boto baliagarriak bi dira: aurkeztutako zerrenda hori, edo boto zuria».

Udaletxeko atean ikusgai jarri dute, zerrenda honek udala hartuko ez balu zer gertatuko litzatekeen: «Gipuzkoako Foru Aldundiak batzorde kudeatzaile bat osatu beharko luke. 2015eko udal hauteskundeetan boto gehien jaso zituen alderdi politikoko hautesleez osatuta egon behar du. Hori posible ez balitz, aldundiak batzordea osatuko luke, borondatez aurkezten diren pertsonekin».

Eskaera bera, Berrobin

Berrobin ere, zerrenda bakarraren aurrean, sare sozialetan kanpaina bat jarri dute martxan, hainbat herritarrek, boto zuria eskatuz. Halaber, Iñigo Aiertza Berrobiko alkateak argi utzi nahi izan du, gaur egungo udal ordezkariak ez daudela kanpaina horren atzean.

V. Ataria pilota txapelketa

ESKUZ

BENJAMINAK A
BERASTEGI, 4. JARDUNALDIA

Ostirala, 18:30

Urkola-Iraola
Lacarra-Erro
Aranalde-Navas-Baleztena
Tolosa-Yurrita
Aizpurua-Odriozabala
Maioz-Maioz
Leo-Zubillaga
Vidaurreta-Lacarra
Gabarain-Rehecho
Aseginolaza-Aldaz-Martinez

ALKIZA, 4. JARDUNALDIA

Ostirala, 18:30

Lertxundi-Urdapilleta
Zuriarrain-Lasa
Altuna-Arandia
Iglesias-Aristondo
Ormaetxea-Urkola-Elola
Dieguez-Garmendia
Garcia-Estevez
Aizpuru-Etxeberria

IBARRA, 4. JARDUNALDIA

Larunbata, 16:15

Aranburu- Azurmendi
Galarraga-Gurrutxaga
Argote- Del Rio
Garaikoetxea-Otegi
Iraola-Navarro
Arruabarrena-Altuna
Zaldua-Etxetxipia-Lasa
Ariño-Altuna

BENJAMINAK B
VILLABONA, 4. JARDUNALDIA

Ostirala, 17:30

Fernandez-Ardanaz
Telleria-Ipentza
Lanzeta-Iraola
Goenzaga-Aranzabe
Gibelalde-Paulino-Artola
Etxetxipia-Maritxalar-Castro
Artola-Elosegi-Galarraga
Arteaga-Nazabal

ALBIZTUR, 4. JARDUNALDIA

IBAN URDAPILLETA

Ostirala, 18:30

Malkorra-Arsuaga-Goikoetxea
Martin-Saizar
Zubillaga-Saizar
Dieguez-Albizu
Sagarna-Kamio
Estevez-Labaka
Otañi-Gurrutxaga
Ezeiza-Juantorena
Aizpurua-Gaztañaga
Landabera-Otegi

ANOETA, 4. JARDUNALDIA

Larunbata, 10:00

Aierdi-Hermida-Ibarbia
Telletxea-Zabala
Saralegi-Saralegi
Otegi-Erro
Xabala-Aranbarri
Telletxea-Zabala

ALEBINAK
ALTZO, 4. JARDUNALDIA

Ostirala, 18:30

Agirre-Tolosa
Iturbe-Gurrutxaga-Etxart
Labaien-Ugartemendia
Argote-Balerdi
Castro-Iglesias
Larrarte-Oñate
Murua-Elola
Jauregi-Mendia

ZIZURKIL, 4. JARDUNALDIA

Ostirala, 18:30

Imaz-Pablo
Artola-Mintegi
Insausti-Lopetegi
Zufiria-Aranburu
Iraola-Zabala-Ugartemendia
Aburuza-Irazu
Meulman-Otaegi
Goenaga-Olasagasti

IKAZTEGIETA, 4. JARDUNALDIA

Ostirala, 18:30

Ugartemendia-Gorostiaga
Alvarez-Garzia-Gorostiaga
Zubillaga-Lobo
Cestau-Aburuza
Lopetegi-Munduate
Tejera-Tolosa
Altuna-Perurena
Arrieta-Arruabarrena

PALAZ

INFANTILAK
BIDANIA-GOIATZ, 2. JARDUNALDIA

Ostirala, 18:00

Agirre-Ugartemendia
Aramendi-Iraola
Maiz-Urkola-Jauregi
Arretxe-Tejeria
Goitia-Uzkudun
Faz-Zubizarreta-Etxeberria
Otaegi-Aranburu
Baldra-Astrain

Tolosa klubeko gimnastak, podiumean. ATARIA

Eskualdeko gimnastak, Gipuzkoako Txapelketan

Erredakzioa Tolosa/Ibarra

Igandean, Azpeitian, amateur talde eta bakarkako gimnasten Gipuzkoako Txapelketa izan zen jokoan, eta Tolosako zein Ibarrako Belabieta klubetako gimnastak bertan izan ziren.

Tolosako klubeko gimnastei dagokienez, jubenil taldea mazoekin txapeldunorde izan zen. Bakarkaka, Oihane Urainek zilarrezko domina lortu zuen xingolarekin, eta Nahia Odriozola bigarren izan zen sailkapen orokorrean, xingolarekin txapeldun, eta pilotarekin bigarren.

Bestalde, I kadetea eta R kadetea txapeldun eta txapeldunorde izan ziren, hurrenez hurren. Seniorrek ere, pilota eta mazoekin urrezko domina jantzi zuten. Olaia Etxeberriak senior plus mailan parte hartu zuen, eta mazoekin, uztaiarekin eta sailkapen orokorrean garaile izan zen.

Belabietako klubari dagokionez, Jubenil A eta Kadete K1 taldeek 8. postua lortu zuten, eta K2 taldeak 16.a. Kadete A mailan, Inko Oruesagasti 6. sailkatu zen eta, kadete B mailan, Olaia Garziarenak, mazoekin, 3. postua lortu zuen eta orokorrean 7. sailkatu zen, eta Olaia Plazasek 9. postuan bukatu zuen txapelketa.

Datorren asteburuan Euskadiko Txapelketa izango da Durangon, eta bertan parte hartuko dute bi klubetako gimnastek.

Ibarrako Belabieta klubeko gimnastak. ATARIA

Espinalek, Arribillagak eta Altunak, pauso bat aurrera

Erredakzioa Tolosa

Lau eta erdiko Tolosako San Joan Pilota Txapelketaren bigarren jardunaldian, jubeniletan Altunak (Aurrera-Tolosa) 22-13 irabazi zion Senarri (Lapke). Etorkizunekoetan, Arribillagak (Ardoi) 22-13 irabazi zion Osari (Gazte Leku). Eta, elite mailan, Espinal (Huarte) 22-12 gailendu zen Prietoren (Danok Bat) aurka.

Bihar izango da txapelketaren hirugarren jardunaldia, Beotibar pilotalekuan, 11:00etan hasita. Jubeniletan Zubeldia (Intxurre) eta Goikoetxea (Tolosa) ariko dira, une onean dauden bi pilotari. Maila berean, Altuna (Aurrera-Tolosa) eta Unai Alberdi (Ilunpe) aurrez aurre. Tolosarrak maila horretako pilotari onenetarikoa izango du aurkari. Etorkizunekoetan, Ruiz de Larramendik (Lapke) aurkari zaila izango du aurrean: Murua (Bergara), bere mailako pilotari onenetarikoa.

Intxurreko gorengo mailakoak, finalerdietan

Erredakzioa Alegia

Intxurreko emakumezkoen gorengo mailako taldeak kopako finalerdia jokatuko du, asteburuan. Trintxerperen aurka 2 eta 1 irabazi zuten larunbatean, eta, finalerako bidean, hurrengo aurkaria Santo Tomas Lizeoa izango dute. Partida bihar, 15:30ean, jokatuko dute Donostiako Berio zelaian. Bestalde, bihar, Intxurre taldeak denboraldi amaierako festa ere ospatuko du. Plazan afaria egingo dute eta, ohiko moduan, denboraldiaren errepaso bat ere egingo dute bertan.

TXIRRINDULARI ONENAK ESKUALDEKO ERREPIDEETAN

Aduna eta Amasa arteko etapa izan zuten, atzo, jokoan, Emakumeen Biran; itzuliko bigarrena, eskualdeko errepideetan barrena. Tropeleko txirrindulari onenak parte hartzen ari dira bertan. Adunatik 100 txirrindulari inguru atera ziren, eta zinta mozketan Josu Amilibia alkateak, Jone Olasagasti alkateordeak eta Ander Altuna etaparen diseinatzaile eta arduradun nagusiak parte hartu zuten. Emakumeen Birako sailkapenetako liderrekin atera zuten argazkia, plazan, irteera egin zen lekuan bertan. Lasterketako txirrindulariak agerkari honen edizioa itxi ondoren iritsi ziren, Amasako helmugara. I.G.L.

Final-laurdenetan sartuko dira, gomazko paletako Herriartekoan

Erredakzioa

Herriarteko Pilota Txapelketako jardunaldi berri bat izango da asteburuan. Aurreko asteburuko emaitzei begiratuta, eskuz, joaneko norgehiagokan, Tolosa eta Bidania-Goiatzen arteko kanporaketatik erretiratu egin da Bidania-Goiatz, pilotarietako batek min hartu baitzuen, partida baino egun bat lehenago, eta ez zuten ordezkorik. Beraz, Tolosak egingo du aurrera.

Asteasuk Zestoaren aurka 2-1 galdu zuen. Kadeteek 22-12, eta jubenilek 22-7 galdu zuten, eta nagusiek 14-22 irabazi. Adunak ere 1-2 galdu zuen Hernaniren aurka. Kadeteetan 15-22 eta nagusietan 5-22 galdu zuten, eta jubeniletan 22-20 gailendu ziren. Altzok hiru partidak irabazi zizkion Oñatiri: kadeteetan 22-12, jubeniletan 22-13 eta nagusietan 22-11.

Gomazko paletan aurrera egin dute eskualdeko bi parte hartzaileek, Anoetak eta Tolosak. Anoetak Azpeitiaren aurka irabazi du kanporaketa, partidei dagokienez 5-1 irabaziz. Tolosak 4-2 irabazi dio Elgoibarri.

Datorren asteburuari begiratuz, gomazko paletan final-laurdenak hasiko dituzte. Anoetak Azkoitiaren aurka jokatuko du, eta joaneko neurketak gaur izango dira, Anoetan, 20:45ean. Bere aldetik, Tolosak Irunen aurka jokatuko du, eta joaneko partidak etxean izango dira, Beotibar frontoian, bihar, 18:30ean hasita.

Eskuzko modalitateari dagokionez, itzulerako partidak dituzte asteburuan. Gaur Adunak eta Hernanik jokatuko dute, Hernanin, 19:30ean hasita, udal frontoian. Ordu berean, Asteasukoek Zestoako pilotarien aurka jokatuko dute etxean, Usarrabi frontoian. Bihar Altzoren txanda izango da, eta Oñatiko Zubikoa frontoian jokatuko dute, 17:00etan.

atariako arkua
zure herriko
jai edo kirol ekitaldietan
erabili nahi baduzu
eskatu doan:
ataria@ataria.eus • 943 65 56 95



Saseta defentsa sistema

Hautsak arrotzen ari diren gai asko daude azken aldian; elementu asko, argi faltagatik berriro lurperatu egiten ditugu. Horri erantzuna emateko, uda honetan hastear dira, berriro, Aranzadi Zientzia Elkarteak antolatutako indusketa arkeologikoak, eta aipatu beharra dago Tolosaldeak ere baduela bere tokia bertan. Hainbat garai aztertzeko aukera ematen digu, eta nik aukera luze horretako batean bakarrik parte hartu dut: Saseta Defentsa Sistema bezala identifikatzen denean.

Saseta Defentsa Sistemak 36ko gerra eta memoria historikoa ditu ardatz, eta horien gainean ikertzeko eta ikasteko aukera ezin hobea aurkezten du, batez ere, hezkuntza eta esperientzia berritzaileak nahasten baitira bertan. Hau olatu kultural berriaren aztarna dela esango nuke; olatu honek arkaikotasuna zulatu eta esentzia berriaren arakatzea ekartzen du, narrazio eklesiastikoak zalantzan jartzera helduz.

Badira urte batzuk planteamendu hau aurrera atera zela, eta Hernioren itzalpean du lo tokia; aurten ikerketa Aiztondo bailaran egingo dute. Hainbat hamarkadatan lurperatuak izan diren hamaika sekretu daude, norbaitek zabaltzeko zain. Agian, hurrena zu izan zintezke!

Horrelako esperientziek bi fase dituztela esango nuke: ikerketa eta aisia. Ikerketaren arloak lubakien azpian zer dagoen aztertzea dakar, eta naturarekin harreman zuzena edukitzea. Aurretik egindako lanen berri ere izaten da, hainbat kultur taldek urtetako hausnarketak plazaratzen dituzte, transmisio katea eten ez dadin.

Beste alde batetik, aisia dugu. Bertan giza harremanak, errespetua, dibertsioa eta lankidetza uztartzen direla azpimarratuko nuke, aukera inklusibo eta intersekzionala, non bakoitzaren gogoetak eta ezagutzak partekatzeko abagune paregabea sortzen den. Denetik ikasteko aukera.

Bi arloak oso desberdinak dira, baina bata bestearekin erabat bateragarriak dira, izan ere, edozein proiektu aurrera ateratzeko beharrezko ezaugarriak dira horiek. Beraz, etorkizunean suerta daitezkeen lan esperientzien aurrerapen egokia izan daiteke, betiere, modu eramangarrian erakutsiz, eta lan esperientzia erosoa izanik.

Baten batek bertan parte hartzeko gogoa izanez gero, esan beharra daukat honek ez duela kostu ekonomikorik, dena ordainduta dagoela, eta denentzat eskuragarria dela. Aranzadi Zientzia Elkarteko webgunera sartu besterik ez da egin behar edo, bestela, ATARIAren webguneara idatzi, eta neronek eskainiko dizuet laguntza.

ANDER OTAÑO ZUBELDIA
GEOGRAFOA

Lortzen programa

45 urtetik gorako langabetuentzako espazio kolektibo eta indibidual bat da, lan munduratzea lortzeko. Bertan, lana aurkitzeko ditugun beharrak, sinismenak, ohiturak, helburuak, mugak, gaitasunak nahiz diruarekiko jarrerak lantzen dira.

Tolosaldea Garatzen Garapen Agentzian enplegu zerbitzuak, sorreratik 25 urte egingo ditu, aurten, lan eskaintzak kudeatzen, eta lana aurkitu nahi duten pertsonei orientazioa eta informazioa ematen. Azken urteetan lan merkatua asko aldatu da, eta gaur egun zerbitzu hori egokitu beharrean gaude, kasuistika eta behar berrietara egokitzeko.

2019. urtean espazio kolektibo eta indibidual bat sortu dugu, 45 urtetik gorako langabetuek orientazioa, prestakuntza eta laguntza izateko, lan munduratzean.

Gaur egun, langabetuen prestakuntza edukitzeaz gain, lan-merkatuan aukera hobeak edukitzeko programa hau aurrera eramaten ari gara. Izan ere, behar bezala moldatzeko baliabideak eta gaitasunak izatea garrantzitsua da lana bilatzeko: enpresek eskatzen dituzten etengabeko aldaketetara egokitzeko, gatazkak kudeatzeko, presiopean lan egiteko, emozioak kudeatzeko, taldearekin koordinatzeko edo norberaren ametsen alde lan egiteko. Beraz, lehenengo fase honetan, pertsona bakoitzaren konpetentzia pertsonalak eta profesionalak identifikatzen laguntzea da gure zeregina.

Programa honetan parte hartzen duten langabetuak gure beste zerbitzuetan lehentasuna dute, guretzat pertsona hauen laneratzea lehentasuna baita.

20 pertsona ari dira proiektu honetan, eta dagoeneko lan eskaintzetara aurkezten ari dira; lana lortu dutenak ere badira.

Ikastaro teknikoak orientazioarekin tartekatu ditugu, eta oso emaitza positiboak lortzen ari gara. Era berean, taldekako ikastaroak eta saio indibidualak ere tartekatu ditugu. Besteak beste: eskorga jasotzaileak, zubi motako garabiak, orientazioa, prestakuntza eta laguntza.

UDALGINTZARA LOTU ZIREN LEHENAK

1979ko apirilaren 3an, asteartez, egin ziren udal hauteskundeak, bigarren errepublikatik lehen aldiz, alderdi politikoek aurkeztutako hautagaitzen artean eta sufragio unibertsalez; udalgintzan parte hartzeko konpromisoa hartu zuten gizon eta emakumeak omentzen ari dira, egunotan, 40 urte pasatu eta gero, eta etziko udal hauteskundeen bezperetan

Jon Miranda

Espainiako gerraren ondoren, eta Francoren diktadura ezartzearekin batera, erregimena pixkana instituzionalizatzen joan zen, eta 1945eko *Ley de Bases del Régimen Local* izeneko legeak zehaztu zuen, nola antolatu behar zuten tokiko administrazioek. Zinegotzien heren bat familiaburu zirenen artean aukeratzen zituzten (*tercio familiar*); beste herena erakunde sindikaleko ordezkarien artean (*tercio sindical*); eta, azkenekoa, herriko erakunde ekonomiko, kultural eta profesionaleko kideen artean, aurrez udalari herrialdeko gobernadore zibilak proposatutako zerrendatik (*tercio corporativo*).

Zinegotziak aukeratzeko modu hau udalak zorrotz kontrolatzeko pentsatuta zegoen, nahiz eta 1960ko hamarkadak aurrera egin ahala, erregimenarekin zerikusirik ez zuen jendea iritsi zen kargu horietara, batez ere, familietako edo sindikatuetako ordezkari gisa. Horietako batzuk frankismoaren aurkako oposizio demokratikoan parte hartzen zuten herritarrak ziren, eta horrek ahalbidetu zuen, neurri handi batean, erregimen aldaketa.

1975ean Francisco Franco hil, eta ondorengo urtean, 1976ko azaroan, erreferendumean onartu zuten, Errefor-

ma Politikorako Lege proiektua, eta lehen ondorioa 1977ko ekaineko Espainiako Gorteak erabakitzeko hauteskundeak izan ziren, 1936tik lehen aldiz, sufragio unibertsala ezarrita. Bi ganberek sustatu zuten, gerora, 1978ko Espainiako Konstituzioa. Legedi berriak ezarri zuen, alderdi politikoek edo hautesle elkarteek aurkeztutako hautagaitzen artean eta sufragio unibertsalez aukeratu behar zirela udalbatzak. Modu horretara egin ziren, lehen udal hauteskundeak, 1979ko apirilaren 3an, duela 40 urte.

Aldaketa ugari

Lau hamarkadaotan, udalen kopuruak nabarmen egin du gora Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian: 23 udalerri berri daude; 1979an 228 ziren eta, egun, 251. Duela lau hamarkada milioi eta erdi pertsona deitu zituzten bozetara, eta, datorren igandean, 2.647 zinegotzi aukeratzeko, 1.723.000 pertsonak izango dute botoa emateko eskubidea.

Tolosaldean, gaur egun 28 udalerri baldin baldira, 1979an 25 ziren. Orendainek, Ikaztegietak eta Baliarrainek elkarrekin, Iruerrieta udalerria osatzen zuten, eta Leaburu-Txarama eta Gaztelu, udalerri bakarrean zeuden batuta. 207 zinegotzi hautatu ziren duela 40 urte eta, igandean, berriz, 214 aukeratuko dituzte hautesleek.

1979ko martxoaren 1ean Espainiako Gorteetarako hauteskundeak egin ziren, eta, handik hilabete eskasera, apirilaren 3an egin ziren udal hauteskundeak. Herrietan bizitasun handiagoa egon zen, eta zerrendak nonahi osatu zituzten.

Tolosaldean, 32.885 pertsonak zuten botoa emateko eskubidea, eta %37,41ko parte hartzea izan zen, lehen udal hauteskunde haietan. Herri txikietan, eskualdeko herririk gehienetan, herri elkarte modura aurkeztu ziren hautagaitzak. Herri handiagoren batean, Anoetan, adibidez, zerrenda independentea izan zen bozkatuena. Gainerakoan, EAJk irabazi zituen hauteskundeak Tolosan, Amasa-Villabonan, Ibarran eta Zizurkilen, eta HBk Iruran eta Iruerrietan. Euskadiko Ezkerra izan zen hirugarren alderdirik bozkatuena, eta lau zinegotzi eskuratu zituen eskualde osoan. Eta, nahiz eta ORT laugarren alderdi bozkatuena izan, ordezkaritza zabalagoa eskuratu zuen, guztira, 8 zinegotzi eskuratuz.

Hain zuzen, ORTko zinegotzien botoak erabakigarriak izan ziren, Villabonan eta Zizurkilen, alkateak izendatzerako orduan. ORTk EAJrekin negoziazioak egin zituen Legorretako udalean, jeltzaleek ORTren alde eginez gero, Villabona eta Zizurkilen alderantziz egiteko. EAJk ez zuen eskaera kontuan hartu eta, horrenbestez, ORTk Villabonan Carlos Etxenike babestu zuen alkate izateko, eta Zizurkilen Inaxi Otegi. Lehenengoa HB eta EEko jendez osatutako zerrenda independente bateko burua zen eta, bigarrena, Herri Batasunako alkategaia.

Omenaldiak nonahi

Amasa-Villabonako Udalak aurtengo Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, omenaldia egin zien, martxoaren 9an, agintaldi hartan zinegotzi atera ziren bi emakumeri: Bittori Zeberiori eta Arantxa Sorondori. Agurra dantzatu zieten, eta lore sorta bana eman zieten, opariekin batera. Aitortza eta omenaldi ekitaldian, egungo alkate Maite Izagirrek hartu zuen hitza lehenik: «Lehenengoak izan zineten, eta bidea ireki zeniguten. Jakizue aitzindariak izan zinetela, eta zuei esker emakumeak politikan jardutea gauza normala dela gaur egun. Ezina ekinez bihurtu zenuten errealitate. Zuek eraikitako kate sendo eta luze hori bizirik dago, inoiz baino biziago eta indartsuago». Ekitaldian izan ziren, besteak beste, Amasa-Villabonako alkate izan diren Maixabel Arrieta eta Bakartxo Tejeria.

Bi omenduek hunkituta jaso zuten aitortza, martxoaren 9an. Bittori Zeberiok gogoan du nola hartu zuen udalgintzan aritzeko konpromisoa: «Ez nengoen horretara ohituta, egin behar zela eta egin behar zela esaten ziguten, eta, azkenean, egin egin genuen. Denari ezetz esatea ere...». Arantxa Sorondok, modu berean, aurretik ikastola eraiki nahian hasitako borrokari segida eman nahi izan zion udalean, «instituzioetan bide hori indartzeko posibilitatea ikusi nuelako». Biek aitortzen dute, berriak zirela kontu horietan, eta ez zirela oso jantziak politikan. «Nire senarra Madrilen zegoen urte haietan; umeak oheratuta utzi, eta udaletxera joaten nintzen. Gainera, askotan han entzuten nituenak ez ziren nire gustukoak izaten», dio Zeberiok. Bat dator Sorondo. «Hala ere, Bittorik gauza bat erakutsi zidan:

www.ataria.eus · 107.6 fm
2019ko maiatzaren 24a

1979KO UDAL HAUTESKUNDEAK TOLOSALDEAN

HERRIA	TALDEA	ZINEGOTZIAK	BOTOAK	ALKATEA
Abaltzisketa				
	Independenteak	7	130	Jose Zabala Altuna
Aduna				
	EAJ	5	137	Jose Agustin Aburuza Eizmendi
	Independenteak	2	82	
Albiztur				
	Independenteak	7	191	Jose Elola Ugartemendia
Alegia				
	EAJ	5	468	Juan Mari Oiartzabal Artola
	Independenteak	4	425	
Alkiza				
	Independenteak	7	160	Victor Julian Sorrarain
Altzo				
	Independenteak	7	177	Manu Olano Jauregi
Amezketa				
	Independenteak	9	258	Juan Bautista Galarza Garmendia
Anoeta				
	Independenteak	5	382	Andoni Argoitia Garmendia
	EAJ	3	197	
	ORT	1	136	
Asteasu				
	EAJ	5	318	Joakin Urruzola Elizalde
	Independenteak	4	309	
Belauntza				
	Independenteak 1	5	127	Ramon Lopetegi Goikoetxea
	Independenteak 2	2	60	
Berastegi				
	Independenteak 1	5	295	Andres Etxeberria Iztueta
	Independenteak 2	3	85	
	ORT	1	43	
Berrobi				
	Independenteak 1	5	159	Txomin Garmendia Galarza
	Independenteak 2	2	63	
Bidania-Goiatz				
	Independenteak	7	109	Migel Ignacio Leunda Ugartemendia
Elduain				
	Independenteak	7	109	Jose Ramon Saizar Etxezarreta

kontua ez zela bestea konbentzitzea, entzuten jakitea eta norberak bere iritzia ematea, baizik. Zenbait gauzatan ez geunden ados, baina entzun egiten zuen, eta ondoren bere argudioak ematen. Emakume maitagarria da Bittori».

Sorondoren esanetan, «gogorra izan zen» garai hartan udalean aritzea: «Bilera asko egiten genituen, eta bilkura oso luzeak ziren, askotan, zentzurik gabeko gaiak tratatzeko. Gauerdia pasata udaletxean segitzen genuen askotan, eta idazkariak esaten zigun legez kanpoko plenoa egitera gindoazela, egun berri batera sartzera gindoazelako, eta deialdi berri bat egitera behartuta geundelako». Bereziki gogoan du Zeberiok, 1979tik 1983ra bitarteko agintaldi hartan, koltza olioaren inguruan sortu zen arazoa.

«Demokrazia garaiko lehen alkateei» omenaldia egin zien, berriz, EUDELek, apirilaren 5ean, Gernikako Juntetxean. *Makila, eskuz esku, 40 urtez* lelopean, 1979an hauteskundeetan hautatutako lehen udalak abiarazi zituzten alkateak omendu zituzten. Nolanahi ere, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udalerriek aurrera egiteko jardunean aritu diren 2.400 alkateri baino gehiagori ere zabaldu zieten aitortza. Ekitaldian Imanol Landa EUDELeko buruak urte hauetako udalen garapena nabarmendu zuen: «Gizonemakume ausartak eta sineste sendokoak izan dira; beren udalerriei dena emanda bizi izan ziren, eta udalerrien alde egin zuten lan, egoera eta baldinta bereziki konplikatuetan. Erreferente dira, bai gaur egun haien lorratzak jarraitzen ditugunontzat, bai etorkizuneko tokiko buruzagientzat».

1979ko alkateen eta egungoen ordezkaritza bat joan zen Gernikako ekitaldira, eta alkateek makilekin osatutako arku batetik igaro ziren omenduak. Musika eta dantza emanaldiak ere izan ziren, eta orduko eta egungo alkate batzuek hitza hartu zuten. Horrez gain, oroigarri bana jaso zuten. Duela 40 urte, 228 udalerritako ordezkariak aukeratu ziren, eta horietatik lau bakarrik ziren emakumezkoak, tartean, Zizurkilgo Inaxi Otegi. Amaitzear den legegintzaldian, 251 udaletatik 69tan emakumezkoak izan dira gidari, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udalerrietan.

Hernialde			
Independenteak 1	4	112	Jose Mari Iraola Imaz
Independeteak 2	3	69	
Ibarra			
EAJ	4	481	Jesus Areizaga Olabe
HB	3	370	
EE	2	289	
PSOE	1	208	
ORT	1	175	
Iruerrieta (Ikaztegieta, Baliarrain eta Orendain)			
HB	4	295	Jose Ramon Larrea Tapia
EAJ	3	174	
Irura			
HB	7	295	Jose Ramon Larrinaga Agirrezabala
Larraul			
Independenteak	7	92	Zorion Jauregi Sarasola
Leaburu (Txarama-Gaztelu)			
Independenteak 1	4	219	Jose Antonio Ugartemendia Agirrezabala
Independenteak 2	2	128	
ORT	1	55	
Lizartza			
Independenteak	7	285	Julian Zubeldia Aierbe
Orexa			
Independenteak	5	72	Jose Atxega Olasagasti
Tolosa			
EAJ	9	3.506	Iñaki Linazasoro Mate
HB	4	1.957	
EE	2	1.111	
PSOE	1	689	
EKA	1	478	
Amasa-Villabona			
EAJ	5	852	
Independenteak	5	771	Carlos Etxenike Etxeberria
ORT	2	307	
PSOE	1	221	
Zizurkil			
EAJ	5	531	
HB	4	505	Inaxi Otegi Tapia
ORT	2	212	

www.ataria.eus · 107.6 fm
2019ko maiatzaren 24a

«40 URTEAN PAUSOTXO BAT BAINO EZ DUGU EMAN»

INAXI OTEGI TAPIA
ZIZURKILGO ALKATE OHIA

Emakume gutxi aritzen ziren duela 40 urte politikan, ez baitzen ohikoa konpromiso politiko eta sozialean jardutea; aurrerapausoa eman, eta udalgintzan aritu zen, bi urtez, «dena egiteko zegoen garaian». Ordutik, herrigintzan jarraitu du beste hainbat arlotan, Gure Eskun edo presoen eskubideen aldeko borrokan, adibidez.

Arripitxi baserrian sortutakoa da Inaxi Otegi Tapia (Zizurkil, 1950) eta alkate izan zen, bere herrian, 1979tik 1981era bitarte. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan legealdi hartan aukeratu zituzten lau emakume alkateetako bat izan zen.

Alkate izan zineneko zein oroitzapen gordetzen dituzu?

Aspaldiko kontu bezala gogoratzen dut, baina gelditu zaidan oroipena da, ausarta izan nintzela. Ezer jakin gabe sartu nintzen udaletxean, baina herriak horrela erabaki zuen, eta aurrerapausoa eman nuen. Gogorra izan zen, baina asko ikasi nuen. Izaeraz lotsatia naiz eta, iruditzen zait, indartu egin nintzela, beharrak horretara jarrita.

Zer nolako giro politikoa zegoen, garai hartan, Zizurkilen?

Garai gogorrak ziren. Mugimendu askotan ibiltzen nintzen. Aurreko urteetan errepresioa ere handia izan zen. Protesta ugaritan ibilia nintzen, eta Zizurkilgo herrigunekoa izanik, erreferentea nintzen maila horretan. Saltsa ugaritan nenbilen. Emakume gutxi ibiltzen ziren politikan, garai hartan. Etxeko lanetan aritzeko rola jartzen ziguten, eta ez zen hain ohikoa emakumeak borrokan eta konpromiso politiko eta sozialarekin ikustea. Pentsatzen dut, zerrendaburu joateko proposamena ere hortik etorriko zitzaidala.

Beste emakumerik izan al zen, zurekin batera, legealdi hartan, udalbatzan?

Bai, ORTko Inma Etxezarreta aritu zen nirekin batera. Gainerako guztiak gizonezkoak ziren.

Tratuan diferentziarik sumatu al zenuten, emakume izateagatik?

Gure udal taldean ez, noski. Eta, orokorrean, beste alderdietatik ere ez nuen horrelakorik sumatu. Eroso aritu nintzen lanean. Kalean bai, entzuten ziren bestelakoak. «Zein tristea, Zizurkilen ez al zegoen gizonezkorik alkate jartzeko, emakume bat jarri behar izateko?», horrelakoak entzun behar izan nituen.

Herri Batasunak ez zituen 1979ko udal hauteskundeak irabazi Zizurkilen. Boto gutxigatik, baina bigarren izan zineten. Zuk bukatu zenuen alkate, ordea.

Bai. ORTkoek gure alde egin zuten. Niretzako ez zen hainbestekoå sorpresa izan, baina bai EAJrentzat. Kristoren ezustekoa hartu zuten.

Ez zenuen agintaldi osoa eman alkatetzan.

Ez. Ni alkate nintzela, Joxe Arregiren istorio triste hori gertatu zen. Izugarria izan zen. Emozio handiko egunak izan ziren, eta halako batean konortea galdu nuen. Orduan jakin nuen haurdun nengoela. Zoritxarrez, handik gutxira, umea galdu nuen. Hilabete gutxira berriz haurdun geratu nintzen, eta ginekologoak berehala esan zidan: «Edo udala edo umea, bietako bat aukeratu behar duzu». Estres handia nuela, eta alkatetza uzten ez banuen haurdunaldiak ezin izango zuela aurrera egin, esan zidan. Kargua utzi nuen, eta Mikel Arrastoak hartu zuen alkatetza.

Aitortutako jarduna al zen, zuk udalean egindakoa?

Ez zegoen gaur egungo liberaziorik eta horrelakorik. Nik Michelinen egiten nuen lan. 19 urterekin sartu nintzen enpresan, eta alkatetza 29 urterekin hartu nuen. Egunero 08:00etatik 17:00ak arte egiten nuen lan. Lantokitik atera, korrika batean Lasartera joan, autobusa hartu, Villabonan jaitsi, eta oinez udaletxera igotzen nintzen. Eta, handik aurrerakoak, bileretan ematen genituen. Tarte hori besterik ez nuen izaten. Ez zen soldatapeko lana izaten. Alderantziz, guk jarri behar izaten genuen dirua askotan. Dietarik ez zen existitzen. Bilkurak bukatzen zirenean, senarra zain izaten nuen Pantxikanen. Ogitarteko bat jan, eta buelta etxera, hurrengo goizean berriz ere martxan jartzeko. Leher eginda bukatzen nuen.

Agintaldi hartako zein borroka dituzu gogoan?

Bereziki gogoan dut eskolaren alde egin genuen borroka, ez bakarrik udalean genbiltzanok, baita gurasoek ere. Hirugarren mundukoa zirudien ordura arteko eskolak, umeak egoteko modukoa ez zena. Gaur egun jada ikusten ez diren protestak egiten genituen: errepide nazionala mozten genuen, Donostiako hezkuntza ordezkaritzara joaten ginen... Lorpena gurasoena izan zen, eta udalak lagundu egin zuen, Madrilera Hezkuntza ministeriora joan, eta ministroarekin elkarrizketatu behar izan genuen. Gaizki pasatzen nuen, baina egin beharra zegoen.

Lemoizko zentral nuklearraren aurka egiteko, argia ez ordaintzeko deialdiak egoten ziren. Zizurkilen bi izan ginen, desobedientzia ariketa hori egin genuenak. Arginda-

«Emakume gutxi ibiltzen ziren politikan, garai hartan. Etxeko lanetan aritzeko rola jartzen ziguten, eta ez zen hain ohikoa emakumeak borrokan eta konpromiso politiko eta sozialarekin ikustea»

«Bereziki gogoan dut eskolaren alde egin genuen borroka, ez bakarrik udalean genbiltzanok, baita gurasoek ere»

«Nik esango nieke, gaur egungo emakumeei, mugitzeko eta konpromisoa hartzeko, ez zaiela damutuko. Gai gara. Mundu eta Euskal Herria hobe baten aldeko borrokan, ez dago aitzakiarik»

Inaxi Otegi Tapia .ATARIA

rra moztu ziguten, eta hilabete batzuetan ibili ginen batere gabe. Orduantxe sortu zen baserrietara potentzia handiagoko argindarra eramateko beharra, behiak jezteko makinak jartzen hasita baitzegoen jendea. Alkate gisa, elektrifikazio sare berria eskatzera joan nintzenean, ordea, Iberdrolako handimandi horiek faktura ordaintzen ez nuenaren kontu horrekin hasi zitzaizkidan. Herrian sare berria nahi bagenuen, aurrez ordaindu egin behar nuela. Xantaia egin zidaten.

Zer nolako tratua ematen zizuten horrelako bileretara joan behar izaten zenuenean?

Iberdrolako bilera horretan, umiliatuta sentitu nintzen, adibidez. Emakume bezala gutxietsia. Gogoan dut, hango buruetako batek etxeko telefono zenbakia eskatu zidala, eta artean guk ez genuen linearik etxean. Oraindik gogoan duat atera zitzaion irri maltzurra, esanez bezala, «gaixo honek ez du telefonotarako ere». Txikia naiz, orduan gaztea nintzen, eta horrelakoetan gurasokeriaz tratatzen nindutela iruditzen zait. Garaiko ahaldun nagusiarekin bilerak egiten nituenean, ironiaz hartzen ninduen, «hara, etorri zaigu gure neskatoa», eta horrelakoak esanez.

Estatus jakin bateko gizonezkoengandik sumatzen zenuen hori.

Bai. Herrian ez ninduten horrela tratatzen, ez gainerako zinegotziek, ezta udaleko teknikariek ere. Egia da EAJko zinegotziak ni baino zaharragoak zirela, eta ni, neska gaztea, hor ibiltzen nintzela bueltaka. Batzuetan izaten nuen *loreontzi* izatearen sentsazioa.

Nola jaso zenuen Gernikako juntetxean 1979an alkate aritu zinetenoi egin zizueten omenaldia?

Ondo, nahiz eta kosta egin zitzaidan joango nintzela erabakitzea. Lotsatia naiz eta jendaurreko kontu hauek ez zaizkit gehiegi gustatzen. Balio izan zidan, nire garai berean alkate izan ziren beste bi emakumezkoak ezagutzeko; hirugarrena, zoritxarrez, hilda dago. Pena eman zidan lehenago ez ezagutu izana. Garai hartan, ez ginen arduratzen udaletan zenbat emakumezko ote ginen jakiteaz. Egin egin behar izaten zen, eta nahikoa lan bagenuen horrekin. Gaur, Zizurkilgo EH Bilduk, herrian ezker abertzaleko hautetsi izan garen guztioi aitortza egingo digu hauteskunde kanpainaren barruan, eta gonbidatuta nago. Maitasun guztiarekin jaso dut gonbidapena. Asko igoko gara oholtza gainera, nik adinako meritu dutenak, eta, gehienak, nik baino merezimendu gehiago egin izan dutenak.

Emakumeok politikan salto handia eman duzuela iruditzen zaizu?

Orain bukatu den agintaldian, 69 izan dira emakumezko alkateak. 40 urtean, 4tik 69ra pausotxo bat baino ez da. Nik esango nieke, gaur egungo emakumeei, mugitzeko eta konpromisoa hartzeko, ez zaiela damutuko. Gai gara. Mundu eta Euskal Herria hobe baten aldeko borrokan, ez dago aitzakiarik. Nik 69 urte dauzkat, eta segiko dut; norberak tokatzen zaion mailan aritu behar du.

Ez duzu berriz politikagintzara itzultzeko tentaziorik eduki?

Ez. Arlo asko daude borrokatzeko. Ni urte askotan presoen eskubideen alde aritu naiz, eta oraindik ere hor nabil. Gure Eskun ere banabil eta, egia esan, hor ikusten dut nire burua aurreraxeago, momentu honetan.

www.ataria.eus · 107.6 fm
2019ko maiatzaren 24a

PENTSATUTAKO PINTZELKADAK

Ekainaren 8ra bitarte ateak zabalik egongo dira, Aranburu jauregian, Jorge Malcorra artista tolosarraren *Lanak* erakusketa ikusteko. Euskarri tradizionaletatik ihesi, tamaina handiko lanak jarri ditu ikusgai.

Irati Saizar Artola

Paper zati marroi batzuk pintzetatik zintzilik, hainbat pintzel pasaldi, esprai ukituak, paperak elkar lotzeko zeloak agerian eta arkatzezko sinadurak. Amaitu gabeko lanak dirudite lehen begiradan, baina apropos egindako zerbait da. Prozesuaren bat-batekotasuna agerian utzi nahi izan du Jorge Malcorra artista tolosarrak, *Lana* izeneko erakusketan. Tolosako Aranburu jauregian dago ikusgai, eta ekainaren 8ra bitarte obrak ikusteko aukera izango da. Arratsaldez irekitzen dute Aranburu Jauregia, 17:30etik 20:00etara, igande, astelehen eta jai egunetan izan ezik.

Estreinakoz jarri du horrelako erakusketa bat Malcorrak; lehen aldia da berak bakarrik egindako «hainbeste lan» erakusten dituela. Aurrez jarria zuen beste erakusketa bat, GKo Galleryn, lagun batekin batera.

Iragartzeko karteletatik hasita egin du berezi bere lana. 150 kartel egin ditu, paper zuriaren gainean, eta orriak bata bestearen segidan jarrita pintatzen aritu da. Lerro bakoitzak jarraipena du kartel batetik bestera, baina, bakoitza bere horretan ikusita, ez da nabari. Horrela, kartel bat bera ere ez da bestearen berdina, «bakarrak eta esklusiboak» dira.

Modu abstraktuan, bere barne sentimenduak islatzen dituen lanak egin ditu azken urteetan, tamaina ezberdinetakoak; batzuk oso handiak, beste batzuk ez hainbeste. Euskarri ezberdin zalea da Malcorra, gogoko du modu tradizionaletik ihes egitea.

Tolosan jarri duen erakusketan, paperean egindako lanak dira nagusi, baina, obrarik nabarmenena, tamaina handia dela-eta, igerilekuak estaltzeko toldo batean egin du. Loreak, animaliak, sentimenduak eta beste aurkituko ditu, Aranburuko beheko solairura bertaratzen denak.

«ZERBAIT ABSTRAKTUA IKUSTEAN, LANDU GABEKOA DELA PENTSA DAITEKE»

JORGE MALCORRA
MARGOLARIA

I. Saizar Artola

Besteak beste, erakusleihoak apaintzen egiten du lan Jorge Malcorrak (Tolosa, 1981). Azken hilabetean, ordea, Aranburu Jauregia bilakatu du bere margolanen erakusleiho. *Lanak* izeneko margolan abstraktuen erakusketa jarri du, eta ikusgai egongo da, ekainaren 8ra bitarte.

Zer aurkituko du Aranburu jauregira gerturatzen denak?

Urtebeteko epean egin ditudan lanak ikusteko aukera izango du. Formatu berezi batean aurkituko ditu; obrak nahiko handiak dira, eta euskarria ere niretzat oso berezia da. Izan ere, kraft paperean egin ditut eta euskarri tradizional batetik ateratzea bilatu nahi izan dut.

> «Kraft paperean egin ditut, eta euskarri tradizional batetik ateratzea bilatu dut»

Normalean, margolanak marko baten barruan ikustera ohitua dago ikuslea. Zure erakusketa bestelako kasua da.

Zerbait desberdina bilatzen ari nintzen. Bat-batekotasun hori euskarrian eta erakusteko eran islatu nahi izan dut. Azkenean, markoarekin edo gabe, pintura bat zerbait dekoratiboa izan daiteke, edo beste zerbait izan daiteke. Orduan, norberari uzten diot erabaki dezan zer den.

Lehen begiradan, eskuz moztutako paper zatiak ikus daitezke, zeloak bistan, sinadurak arkatzez. Naturaltasun hori bilatu nahi izan duzu?

Bat-batekotasun horretatik tiraka, prozesua ere oso garrantzitsua da niretzat. Ez da zerbait polita bilatzea soilik, landutako zerbait da. Askotan, zerbait abstraktua ikusitakoan, landu gabeko zerbait dela pentsa dezake jendeak, baina, niretzat, nahiz eta pintzelkada edo kolore gutxi izan, lana dago hor atzean; arkatzarekin egiten dena izan daiteke, edo zelo zatiak jartzen edo kentzen egiten dudana.

Zein estilotan egiten duzu lan?

Abstraktuan mugitzen naiz, eta espresionista aldean kokatuko nuke, baina neure burua estilo bakarrera ez mugatzen saiatzen naiz. Izan ere, nahiago dut barrutik ateratzen zaidana eta nahi ditudan gauzak margotzea. Adibidez, erretratu bat ere egin dezaket; erakusketa honetan ez dago bat ere, baina hori nahi dut, ez mugatzea.

Eta, teknika aldetik?

Normalean, teknika asko erabiltzen ditut. Erakusketa honetan, akrilikoarekin margotu ditut, pintzelaz. Azken boladan espraia ere asko ari naiz erabiltzen, baina, ez zuzenean edo betiko eran; adibidez, margolanaren zati batean bakarrik erabiltzen dut. Beste batzuetan, ordea, collagea erabiltzen dut edota argazkigintza. Azkenean, euskarriz aldatzea ere gustatzen zait. Kasu honetan paperean egin ditut, baina, beste momenturen batean, beste zerbaiten gainean egiteko aukera badut, ba egingo dut.

Paperaz gain, ordea, obra bat plastikoaren gainean aurki daiteke, Aranburu jauregian.

Areto handienean dago lan hori, azkenekoan. Ikuslearen ikuspuntutik ere zerbait bilatu nahi nuen; erakusketa guztia ikustean, azken aretoan zerbait nahi nuen, nabarmentzeko. Toldo hori aurkitu nuen, eta interesgarria iruditu zitzaidan beste formatu batean eta beste era batean lantzeko, eta horregatik aukeratu nuen.

Hainbat espaziotan dago banatuta erakusketa hau. Animaliak, loreak, sentipenen inguruko lanak aurki daitezke. Bakoitza gai jakin baten inguruan osatu duzu?

Bai, nahiz eta abstraktuak izan, diskurtso bat edukitzea bilatu nuen. Erakusketara sartzerakoan, bidaia bat bezala izatea nahi nuen, eta bidaia hori pieza handi batekin bukatzea.

Obren ondoan txartel txiki batzuk jarri dituzu, lanaren izena, tamaina eta prezioarekin. Edonork eros ditzake?

Bai, egin ditudan lanak salgai daude. Niretzako, azken batean, hori da elkarrizketa. Askotan, arte munduak oso urrun dagoela ematen du, eta badirudi artea erostea oso garestia izan daitekeela. Orduan, prezioa jartzea interesgarria iruditu zitzaidan; obraren eta ikuslearen arteko konbertsazio horretan zuzena izan nahi nuen.

Gela batean, loreen obrak daudenean, lore freskoak jarri dituzu erdigunean. Zer dela eta?

Jendea espazio horretan dabileneank paretei begira soilik ez egoteko jarri ditut. Ikuspuntu orokorrago bat izateko, gehienbat. Azken batean, hiru loreontzi horiek amaierako horma ere nabarmentzen dute. Lore bakoitzak kolore bat du, eta zentzua ematen dio espazio horri.

Erakusketaz harago, noiz hasi zinen margotzen?

Txikia nintzela hasi nintzen. Nire aitonak ere margotu egiten du, eta bera izan zen gorputzean margotzeko grina sartu, eta adierazteko bideak erakutsi zizkidana. Bizitza osoa daramat, gelditu ere egin gabe, marrazten. Baina, duela hiru urte inguru, buru-belarri hasi nintzen. Gaur egun, ia egunero zerbait margotzen dut, ariketa bat bezala hartuta daukat.

Diseinuan ere lan egin izan duzu.

Hasiera batean psikologia ikasketak egin nituen eta, geroago, erakusleiho apaintzaile moduan aritu nintzen lanean. Azken batean, erakusleihoak ere arkitektura iraungikor bat bezala dira; nire ikuspuntutik zerbait artistikoa dira, izan ere, zerbait muntatzen duzu, eta hilabete batean kendu eta beste bat jartzen duzu. Orduan, ariketa hori sormen aldetik ere oso interesgarria da eta, hortik, erabaki nuen nire jardun profesionala horretara bideratzea.

Zer eskaintzen dizu zuri margotzeak?

Niretzako askatasuna da. Libre sentitzen naiz margotzen dudanean, eta emozionalki ere nire gauzak islatzen ditut, margolanen bidez. Nahiz eta koadro abstraktuak izan, emozioak ere islatzen dituzte. Zerbait margotzen ari naizenean, atzean zoriontasuna, haserrea edota tristura egon daitezke.

Non hartzen duzu tartea margotzeko?

Leku nahiko zabal bat daukat, eta normalean lurrean margotzen dut. Zortea dut, leku zabal samar bat dudalako. Oraingoz ez daukat estudiorik.

Etorkizunean zeure burua margotzen ikusten duzu?

Bai, egia esan, bai. Bai beste erakusketa batzuk jarriz, baita beste hainbat euskarritan lan egiteko ere. Orain beste proiektu batzuk ditut buruan, eta ea aurrera ateratzen diren.

«Libre sentitzen naiz margotzen dudanean, eta emozionalki nire gauzak islatzen ditut, margolanen bidez»

samaniego
herri ikastetxea

Txerri boda Orexan

Aurten DBH 1eko ikasleok *Welcome to Tolosaldea* izeneko proiektuaren barruan, web orri bat osatu dugu. Proiektua garatzeko, hainbat arlotan aldi berean aritu gara lanean: ingelesean, biologian eta geologian, gazteleran, geografian eta historian, eta euskaran. Proiektuaren helburu nagusia gure bailarara etor daitekeen edonori Tolosaldeko informazio interesgarria eskaintzea izan denez, euskararen arloan Tolosaldeko ohitura eta jaiei buruz aritu gara, eta, landutako gaien artean, besteak beste, Orexako txerri bodei buruzko testua osatu dugu. Jarduera hauek guztiak talde kooperatiboetan egin ditugu, hau da, talde txikietan banatuta, informazioa bildu, testua osatu eta irudiz hornitu dugu. Zuzenketak ere elkarlanean egin ditugu, gutako bakoitzari zegozkigun ardurak hartuz.

Garai batean, Euskal Herriko herri txikietan janaria eskas izaten zen eta, horregatik, baserrietan txerria eta beste hainbat abere hiltzen zituzten. Abereak urte sasoi desberdinetan hiltzen ziren: ardiak, udazkenean; arkumeak eta antxumeak, udaberri hasieran; hegaztiak eta untxiak behar ziren garaian. Txerria, normalean, San Martin edota Santo Tomas egunen inguruan hiltzen zuten.

Urtetan, Txerri-boda Euskal Herriko baserrietan egiten zen ospakizuna izan bazen ere, gaur egun oraindik mantentzen den tradizioa da, hasierako zentzua galdu duen arren. Baserriko familiak hartzen du lan hauen ardura, baina ingurukoek ere laguntzen dute, eta guztien artean antolatzen dute behar den lekua eta materiala: mahaia, txerria etzateko; gakoa, lepotik sartzeko; labana, odola ateratzeko; baldea, odola jasotzeko; sua, txerriari ileak erretzeko; lastoa, tapatzeko; haga, zintzilik jartzeko; mangera, txerria garbitzeko; inbutua, odolkiak egiteko; eltzea, hauek egosteko, eta mahai-zapia, odolkiak egindakoan gainean jartzeko.

Orexan, ohitura zaharra jarraituz, txerria hil aurretik kafea anisarekin edaten dute goizean. Gero, txerriari lepotik gako handi bat sartzen zaio eta arrastaka eramaten dute. Ondoren, txerria hiltzeko mahaiaren gainera igotzen dute, eta lau-bost lagunen artean eusten diote. Orduan, txerri hiltzaileak lepotik labana sartzen dio, eta odola ontzi batean jasotzen da. Bitartean, etxekoandreak odol hori nahasten du, bestela gogortu egiten da-eta.

Txerria odolustu eta gero, garoarekin estali eta su ematen diote, azala erretzeko. Hori egin ostean, marmitaren estalkiarekin eta teilekin azala kentzen zaio. Hurrengo pausoa tripak atera eta txerria haga baten gainean jartzea da, bizkarrean gurutze bat eginez. Helduak horretan ari diren bitartean, gaztetxoek maskuria bete eta lehortzen jartzen dute. Gero, haragia aztertzera eramaten da. Horren emaitza jaso bitartean, gibela jartzen dute bazkaltzeko eta, ondoren, haragia ere bazkaltzeko prestatzen dute.

Arratsaldean, emakumeek odolkiak egiten dituzte, eta elkarlanean haragia xehatzen dute. Horren ostean, askaldu egiten dute. Ohiturak agintzen duen bezala, askaltzeko txokolate beroa, irasagarra, arrautza gogortua eta laranjak jaten dituzte. Amaitutakoan, haragi xehatuari baratxuriak nahasten zaizkio, eta egun pare batez uzten dute horrela. Lanak bukatutakoan, afaria egiten dute.

Hurrengo egunean, haragi puskak gazikutxetan sartzen dituzte. Odolkiak txerri bodan lagundu dutenen artean banatzen dituzte, eta txerri hiltzaileari solomo txiki bat ematen diote. Ohikoa da, edo izan da, auzotarren artean ere txerri puskak banatzea. Hortik dator *Odolkiak ordainetan* esaera.

Txerria hil eta hiru egunera, txorizoak egiten dituzte, eta lan horrekin amaitzen da ekitaldia.

Oier Iturrioz, Salma Kemmoun, Aimar Leunda, Lorena Riego (Orixe DBH 1B)

‘Makina Bat Taupada’ Errenterian

Datorren ekainaren 2an ospatuko dute, Errenterian, Euskal Eskola Publikoaren jaia, eta dagoeneko iragarri dituzte festa eguna hartuko duten jarduerak eta hitzorduak; sei gunetan banatuta, adin guztien neurrira diseinatutako egitaraua prestatu dute.

Ekainaren 2an Errenterian ospatuko dugu Euskal Eskola Publikoaren 28. Jaia. Egitaraua sei gunetan antolatuta egongo da, eta hamaika jardueraz gozatzeko aukera paregabea izango da. Koldo Mitxelena, Gamon Zumardia, Gernika plaza, Herriko plaza, Foru plaza eta Ondartxo izango dira sei guneak.

Ekainaren 1ean hainbat ekintza burutuko dira Errenterian, jaiari harrera emateko. Gamon Zumardia gunean, familian jolasteko aukera izango da, 16:00retatik aurrera. Herriko plazatik, Errenteriaren historia industriala ezagutzeko, *Sirena hotsen atzetik* izeneko bisita gidatu bat egingo dugu, 16:00etatik 17:30era. 19:00etan Nerabe taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera izango da.

Koldo Mitxelena eskola izango da Euskal Eskola Publikoaren 28. jaiaren lehenengo gunea; atsedenerako leku aproposa, behin irekiera ekitaldia amaituta. 15:00etatik aurrera, Juneren Hegoak, Mindara eta Begisare elkarteek tailerrak eskainiko dituzte. Gamon Zumardia izango da jaiaren bigarren gunea. 12:00etan Pirritx, Porrotx eta Marimotots igoko dira oholtzara *Musua* ikuskizunarekin. 11:00etatik aurrera, berriz, Baloreak proiektuaren egitasmo interaktibo batean parte hartzeko aukera egongo da. Arratsaldean musika izango da protagonista, Demode Quarteten ikuskizunarekin eta Nogen taldearen kontzertuarekin. Kiosko gunean Eroski gunea egongo da, Elikadura Eskolako programarekin eta, Euskaltel gunean, inbasio estralurtarra gertutik ikusteko aukera izango da, errealitate birtualeko betaurrekoak erabiliz. Horrez gain, janari txartelak erosteko eta bazkaltzeko aukera ere izango da, kioskoaren inguruan.

Gernika Plaza izango da jaiaren hirugarren gunea eta, bertan, 11:00etatik aurrera, puzgarriak egongo dira; baita PAI Antzerki eta Kale Animazio konpainiaren jolas kooperatiboak ere. Laugarren gunea, Herriko plaza, kontzertuen gunea izango da. Bertan Errenteriako Musika Eskola arituko da, Ene Kantak ikuskizuna eta Izaki Gardenak taldearen kontzertua. Foru Plazan egongo da jaiaren bosgarren gunea. Apaxi ipuin kontalaria (zeinu hizkuntzan eskainiko da) eta tailerrak egingo dituzte bertan: umeak garraiatzeko zapiak, henna eta perkusio tailerra, hain zuzen ere. Gune honetan Roberto Whitek txontxongilo ikuskizuna ere eskainiko digu.

Ondartxo gazte gunea izango da (alkoholik gabeko gunea, hain zuzen ere). Ergometroak frogatzeko aukera izango da, skate erakusketa eta tailerra; DJ Txurruk eta Asier Burguetek musika pintxatuko dute, eta dantza urbanoa egongo da. Horrez gain, Aneguria arituko da abesten eta musika pintxatzen, eta arraun ikastaroa izango da, Hibaika Arraun Elkartearen eskutik. Egunean zehar graffiti erakustaldia, skate zirkuitoa, erakusketak eta kale animazioa izango dira.

Gainera, giroa berotzeko hainbat jarduera ibiltari izango dira, Errenteriako kaleetan zehar: EH 11 kolore, Euskorleans, Rockalean, EMKE banda, Reperkusion Feminista, trikitilariak, txistulariak eta dantzariak.

Agenda

OSTIRALA
MAIATZAK 24

ALKIZA
17:00. Buruariñak egiteko tailerra, Tantai konpainiaren eskutik.

AMASA-VILLABONA
17:15. Onddo Gazte Asanbladaren 22. urteurrenean, haur jolasak. 22:00etan, film proiekzioa terrazan eta gaubela.

AMEZKETA
19:00. Gimnasioan ariketa fisikoa egoki egiteko ikastaroa, BPXport enpresako adituen eskutik, kultur etxean.

ANOETA
18:00. Gaztetxean dokumentala: *Gerra hemen hasten da.* Armagintza industriak Euskal Herrian duen papera hizpide.

BERROBI
22:00. Mendi Tour 2019ko bi filmen proiekzioa, Begi-Urdin gaztegunean: *The Dawn Wall* eta *Viacruxis.*

IBARRA
22:00. Ibarrako V. Mus Txapelketa Herrikoia, Arkaitz Azpi tabernan.

IKAZTEGIETA
19:00. Euskara taldearen bilera, udaletxean.

IRURA
19:00. Eguzkigoxo abesbatzaren emanaldia, elizan.

LARRAUL
19:00. Hitzaldi musikatua Joseba Tapiarekin, ostatuan. Bere diskografia gainbegiratuko du, hitzaldi musikatu batean. Ondoren, afaria izango da.

LEABURU-TXARAMA
20:30. Txaramako festak. Afari autogestionatua. 22:15ean Imanol Ituño magoaren emanaldia.

TOLOSA
15:00. Samaniego herri ikastetxeko obrak direla eta, festa egingo dute, LHko eraikinean.
17:15. Henna tailerra topagunean. Adina: 12-17 urte.
19:30. MUSIKARIAren barruan, Bohemien Trioren emanaldia, Topic zentroko aretoan. Musika frantziarra, jazz estandarra eta beste hainbat doinu.
20:30. Antzerkia Leidorren, gazteleraz: *Juntos.* Aktoreak: Kiti Manver, Melani Olivares, Gorka Otxoa eta Ines Sanchez.
22:30. Kontzertuak Bonberenean: Potentor eta Euphoric. Sarrera: 6 euro.

LARUNBATA
MAIATZAK 25

ALEGIA
20:30. Intxurre futbol taldearen denboraldi amaierako afaria, plazan.

AMASA-VILLABONA
09:00. Onddo Gazte Asanbladaren 22. urteurrenean, mural margotzea goizean.
12:00-15:00 / 18:00-21:00. Villabonako VI. ardo azoka, plazan.

ANOETA
12:30. Belaunaldi eguna gaztetxean. Mural margotzea eta bideo emanaldia. 14:00. Bazkaria. Ondoren, Kahoot lehiaketa. 18:00. Poteo musikatua. 23:00. Kontzertuak: Patxuko Nice eta DJ Bull. Txirrisklasa egongo da. Sarrera: 5 euro.

BERASTEGI
EUSKAL JAI EGUNA
11:30. V. Pintxo Lehiaketa.
13:00. Pintxo dastatzea eta sari banaketa. Bitartean,trikitilariak.
14:30. Herri bazkaria; janaria nor-berak eraman beharko du eta anto-lakuntzak ogia, edaria, kafea eta kopa jarriko ditu.
17:30. Euskal jolasak. Jarraian, erromeria Elizagoien ahizpen eskutik.
Iluntzean. Luntxa Urepele Elkartean.

BERROBI
09:00. Kulturaldiaren barruan, mendi irteera Erroizpera.

GAZTELU
10:00. II. Udaberri festa. *Gazteluko baserriak ezagutzen* jolasa. 16:00. Txokolate jatea. 17:00. Ipuin kontalaria. 19:30. Musika emanaldia Txamukos taldearen eskutik, eliza atarian. Ondoren, mexikar afaria Gazteluko elkartean.

IBARRA
11:30. Kartzela jardunaldiak gaztetxean,

hitzaldia: *Kartzelaren funtzioak sistema kapitalistan.* Gero, 14:00etan, bazkaria izango da Xeplan.17:30ean mahai ingurua, herriko preso ohien eskutik. Ondoren, 21:30ean, bokadilloak gaztetxean. Gauean The Selektors taldea.

LEABURU-TXARAMA
TXARAMAKO FESTAK
16:30. Haur jolasak eta ondoren, txokolate jatea.
18:30. Segalarien erakustaldia plaza ondoko belazeetan.
20:30. Argazki erraldoia, herriko preso zein eskualdekoei bidaltzeko.
21:00. Herri afaria elkartean, Oihana Iguaran eta Angel Mari Peñagarikanorekin.

LIZARTZA
10:00. Estratako festak. Txupinazoa eta diana. 11:30. Hamaiketakoa Estratan. 12:30. Bertso poteoa Iguaran eta Altunarekin. 13:30. Toka txapelketa. 14:30. Bazkaria bertsolariekin eta Joxe Ramon txiste kontalariarekin. 17:00. Mus txapelketa eta garai bateko ume jolasak. Ondoren sagardo dastatzea Araitzko trikitilariekin.

ORENDAIN
16:30. Ogia egiteko tailerra, Tolosako Garia okindegiaren eskutik, elkartean. Gehienez ere, 15 pertsona.

TOLOSA
11:30. Bisita gidatu antzeztuak helduentzat Topic-en; izena eman behar da aurrez. 11:30ean euskaraz; 12:30ean gazteleraz.
16:30. Kirola kalean, topagunearen eskutik, 12-16 urte bitartekoentzat. Euria eginez

gero, topagunea zabalduko dute.
22:30. Kontzertuak Bonberenean: The Bröntes eta Green Bananas. Sarrera: 8 euro.

'BELAR TXARRIK EZ DO!' BEDAION
09:30–11:30 / 12:00–14:00. Kosmetika naturalaren ikastaroa, Maria Pacharen eskutik.
10:00–11:30/12:00–14:00. Bi libururen aurkezpena. Haritzaren ezkurren eta landare basati jangarrien ezaugarri eta erabileraren solasaldia . Bi orduko irteera sendabelarrak ezagutu eta izendatzeko.
16:30–20:00. Haritzaren ezkurrak eta landare basati jangarrien sukaldaritza teorikoa eta praktikoa, Sofia Armenterosen eskutik. Arratsaldean prestatutakoa gauean afalduko dute.
VI. MUSIKHERRIA
09:30etik aurrera. Dultzaina taldeen dianak herriko auzo eta kaleetan.
10:00. Iraunkorrak txaranga Berazubitik Plaza Zaharrera.
11:00. Isidro Larrañaga akordeoi orkestra Plaza Zaharrean, Klarinete jotzaileak Aroztegieta/Errementari arteko txokoan, Hodeiertz abesbatza Lopez Mendizabal plazan.
11:00etatik aurrera. Musika eskoletako ikasle taldeak kalez kale: Txistu taldea, ikasleen banda, akordeoi jotzaileak, klarinete jotzaileak, Uztaritzeko Herri Soinua Elkartea.
11:30. Laskorain Ikastolako Lask abesbatza Plaza Zaharrean.
12:00. Hodeiertz abesbatza Plaza Zaharrean.
12:00. Tolosa Kantari, Maria Luisa Agirre doktorearen plazatik.
12:00. Udaberri dantza taldeko fanfarrea.
12:15. Lask abesbatza Lopez Mendizabal plazan.
12:45. Isidro Larrañaga akordeoi orkestra Lopez Mendizabal plazan.
Bazkal aurretik. Konponezinak txaranga, Iraunkorrak txaranga.
14:30. Herri bazkaria Zerkausian, Gautena elkartearen alde, Laskorain ikastolak prestatua.
Bazkal ondoren. Musika zuzenean eta arrain Dantza.
18:00etatik aurrera. Jarauta 69 txaranga kalean.
20:00 / 24:00. Plaza Berrian: Trikidantz.
22:30. Kantzaldia Plaza Berrian: Niko Etxart eta Maialen Errotabehere.

ZIZURKIL
10:30. Tolosaldeko Mintzalagunen irteera, Pedro Mª Otaño plazatik, Irizibarko karobira. Teodoro Hernandorena kultur taldeko kideek azalpenak emango dizkiete.

IGANDEA MAIATZAK 26

HERRIA
EKITALDIAREN IZENA
Negrita. Tettestua testua testua testua testua testua testua testua.
Negrita. Testua a.

TOLOSA
12:00. Udaberri dantza taldeko ikastaroen emanaldia, Leidor aretoan: *Ttipi-ttapa*. Sarrera: 4 euro.
19:00. Go Flow 3 tabernan, doan.

'BELAR TXARRIK EZ DO!' BEDAION
10:00–12:00/12:30–14:30. Kosmetika natural ikastaroa, Maria Pacharen eskutik.

ASTELEHENA MAIATZAK 27

IRURA
17:00. Haur masaje tailerra, herri-eskolako aretoan. 17:00-17:45. 0 eta 1urte bitartekoentzat (gehienez 8 haur). 17:45-18:30. 2 eta 3 urte bitartekoentzat (gehienez 9 haur). Izena aurrez eman beharko da.

M-26

AMASA-VILLABONA
Maiatzak 24, ostirala, 19:30. EH Bilduren gurpil martxa herrian , Errota Txiki parketik.

ANOETA
Maiatzak 24, ostirala, 19:00. EH Bilduren kanapina amaierako ospakizuna, zimiterioan, pintxo eta musikaz lagunduta.

BERASTEGI
Maiatzak 24, ostirala, 18:30. EH Bilduren bizikleta martxa, kanpaina amaitzeko, plazatik abiatuta.

LIZARTZA
Maiatzak 24, ostirala, 19:00. Debatea, kultur gunean, Antton Gomezen eskutik: *Iragan bat gure etorkizun politikorako.*

TOLOSA
Maiatzak 24, ostirala, 21:00. EH Bilduren kanpaina amaierako afaria egingo dute, Zerkausian. txartelak 16 euroan salgai, Rakun, Xirimirin, Amaiurren eta Bilgunean,

ZIZURKIL
Maiatzak 24, ostirala, 19:00. EH Bilduren udal hauteskundeetarako ekitaldi nagusia, Joxe Arregi plazan.
Bestalde, arratsalde osoan herritarren galderei erantzuteko gune bana jarriko dute, herriko bi plazetan.

ZINEMA

'LA CAÍDA DEL IMPERIO AMERICANO'
Larunbata (19:30/22:30). Jatorrizko bertsioa, azpituluak gazteleraz Astelehena (20:30).
Leidor, Tolosa.

'MENTES BRILLANTES'
Igandea (19:30/22:00).
Leidor, Tolosa.

Aralarko artzainen omenez...

JOKIN SOROZABAL

Udaberriko zizak hasita omen daude baita mendizale ta lasterkari ere ilunabar aldera ardi ta abere mendiaren doinua baketsu ta bare uda pasa dezagun istilurik gabe (bis)

Doinua

Egun seinalatua

Burua galdu dugu Instagramekin

Sare sozialek ordaintzen dizkidate nire hileroko fakturak eta kapritxo guztiak. Facebook, Twitter edo Instagram bezalako sare sozialen kudeaketaz arduratzeagatik, soldata bat jasotzen dut, hilero, aspalditik. Hala ere, azken hilabete hauetan, Instagramen arrakastak ekarri dizkigun ondorioak gorrotatzen hasi naiz.

Gaur dena da *Instagramagarria*. Eta hori arazo larri bat da, bizitza erreala bizi beharrean, bizitza digitalean pentsatzen duenarentzat. Berarentzat eta bere inguruan daudenentzat. Nik neuk ere, bizitza digitalari behar duena baino denbora gehiago eskaintzen diot askotan, baina hori aldatzeko asmotan nabil honezkero

Amerikar Estatu Batuetan izan naiz, Aste Santuan, nire lagun min batekin. Nueva York eta Chicago goitik behera ezagutzen ibili gara eta, bi aste luze hauetan, ehunka (beharbada milaka) argazki atera ditugu, gero horietako batzuk gure Instagram pertsonaletara igotzeko.

ALEX PADILLA
KALEZALE AMORRATUA

Aitortu beharra daukat, behin baino gehiagotan argazki kopuru muga bat jarri niola nire lagun minari. Nazkatuta amaitzen nuen, berak bilatzen zuen «argazki perfektu» hori lortzeko, aurretik atera behar nizkion 50 argazkiak egiten. Ilea solte, gero motots batekin; begirada eskuinera, orain ezker aldera; irribarre polit bat; ez, hobe serio. Uffff!!!

Hala ere, honen guztiaren errua ez da nire lagun minarena (asko maite zaitut, Mai!), Instagramek milleanialen eguneroko bizitzan izan duen eraginarena, baizik.

Instagram postureo hutsa dela esaten badut, ez dut ezer berririk esaten. Sare sozial honetan dagoen naturaltasun ezak, asko kezkatzen nau. *Like* edo *Atsegin dut* baten truke, edozer egiteko gai da (gara) jendea.

Gure «arrakasta digitala», argazki batek jasotzen dituen *like*-n arabera neurtzen dugu, eta honek bizitza irreal eta faltsu baten parte izatera eramaten ez ote gaituen galdetzen diot buruari, askotan. Argi dago sare sozialek onura asko ekarri dizkiotela gizarteari, baina, hainbat esparrutan, burua galtzen gabiltzala uste dut.

Gaur dena da *Instagramagarria*. Eta hori arazo larri bat da, bizitza erreala bizi beharrean, bizitza digitalean pentsatzen duenarentzat. Berarentzat eta bere inguruan daudenentzat. Nik neuk ere, bizitza digitalari behar duena baino denbora gehiago eskaintzen diot askotan, baina hori aldatzeko asmotan nabil honezkero. Ikusi beharko da, nire asmoak errealitate bihurtzen diren. Kontatuko dizuet ;)

SONETOA KARLOS LINAZASORO

Ezer ez duena

Ezer ez duena, emateko prest.
Hori esan eta ite missa est.
Zergatik ematen du: ez daukalako?
Edo ez daukanetik baduelako?

Ez eduki, eta hala ere ematea,
horixe da eskuzabal izatea.
Dagoena errazago banatzen da,
eta hain erraz ere ez, egia esanda.

Zergatik da aberatsa esku-laburra
eta txiroa, aldiz, esku-gizena?
Asko inoiz ez delako aski ote?

Oi, aberatsen beso zuhurra!
Dena izan, eta hala ere behar dena,
biziko bada pozez lodikote.

Afrikatik Europara? Baita igerian ere!

Afrikan, oro har, Europan baino askoz pobreago bizi dira eta, toki askotan, miseria gorrian. Estatu batzuetan milioika lagunek «bizi» edo «iraun» egiten dute, nola edo hala, eta, tarteka, mordoa zulora joaten da, edozein gaixotasun txorogatik edota goseak jota. Alegia, gure espezieko sapiens «aberatsok» muturreko pobrezian bizitzera kondenatu ditugula, patxada ederrean. Kantak zioen bezala: «Eta, nola gu, egunero patxada merkean, oso lasai bizi gera...», Imanolen ahots gozo bezain sarkorrean.

IÑAKI AZALDEGI
OINEZKOA

Ia-ia inori ez zaio gustatzen sorlekutik alde egitea. etorkizunik ez duelako bertan, bizi-baldintza negargarrietan iraun behar duelako bere jaioterrian. *Ez gara hain onak benetan,* gurera pozik etor daitezen, gu jatorrak garelako edo, etortzeko plazer hutsez, gu geure bidaietan gabiltzan moduan. Europara ez dute berez etorri nahi, ez ditu gu bezalako *txuritxoak* ikusteko irrikak erakartzen; alderantziz, guztiz behartuta datoz, muturreko behar gorriak ostikoka bidalita. Goseak dakartza, ez gure abegikortasunak, ez gure dohain bereziak, ez gure azalaren koloreak, ez... Ez.

Txad, Mali, Mauritania, Niger, Burkina Faso,... miseria hutsa dira. Gure barne produktu gordinaren % 5 daukate biziraute-ko, hortik atera kontuak! Arestian aipatutako estatuetan 80 milioitik gora bizi dira; milioika gose pasatu, alde egiteko gogo biziarekin, esperantza dagoela uste duten toki batera. Nola geratu han, bizitzekorik ez eta etortzeko beharra duen tamaina horretako tropa? Ezinezkoa da, etorri egingo dira, igerian behinik behin! Edo pateretan, edo autobus azpietan, edo...

Beren lurraldeetan modu duinean bizitzeko baldintzak sortu ezean, gurera etorriko dira, guztiz behartuta bada ere. Eta ongi etorri, geuk ere horixe bera egin genuen-eta, hemen miseria zenean.

Beren lurraldeetan modu duinean bizitzeko baldintzak sortu ezean, gurera etorriko dira, guztiz behartuta bada ere. Eta ongi etorri, geuk ere horixe bera egin genuen-eta, hemen miseria zenean

EGURALDIA

GAUR

Giro freskoa eta bustia. Ipar-mendebaldeko haize bizia nagusituko da egun osoan, non horrekin zerua hodeitsu agertuko den eta tenperaturen beherakada nabarmena jasango duten. Maximoa ez da 14-16 gradutik pasako eguneko erdiko orduetan. Euria ere izango dugu, non egun hasieran zaparrada mardul samarrak izango diren, ekaitzen bat baztertu gabe. Arratsaldean zaparrada tartekatuagoak eta ahulagoak izango dira. Hala ere, ez du erabat atertzerik lortuko.

IKER IBARLUZEA
EGURALDI MUTILA

BIHAR

Giro tristearekin jarraituko dugu. Ipar-mendebaldeko haize biziaren eraginpean jarraituko dugunez, zerua ia estalirik agertuko da egun osoan. Hodei horiek euria utziko dute. Goizean eta eguneko erdiko orduetan espero da euri gehien, non zaparrada mardulagoren bat edo beste izango den. Gainontzeko orduetan euri txikiagoa egingo du. Termometroek beste koska bat behera egin eta maximoa 13-15 graduan errendituko da.

ETZI

Beste egun batez giro fresko eta tristea. Berriz ere egun osoz ipar-mendebaldeko haizea nagusituko da, indar pixka bat galduz eta horrekin zerua hodeitsu agertuko zaigu. Euria ere izango dugu, non gehienbat goizean botako duen. Hala ere, euri txikia izango da eta litro gutxi pilatuko dira, egun amaieran atertzeko joera hartuz. Termometroek nahiz eta gradutxoren bat gora egin, gehienez 14-16 gradura iritsiko dira eguneko erdiko orduetan.

OSTIRALA 24	IGANDEA 26
LARUNBATA 25	ASTELEHENA 27

IRAGARKI LABURRAK

LAN ESKAINTZA

Komertziala. Landanet enpresak komertzialak behar ditu. Baldintza ezin hobeak: lan-kontratua, soldata finkoa, komisio altuak hilero eta formazioa enpresaren kontu. Bidali curriculuma *info@landanet.net* helbidera, edo deitu 943 31 86 06.

• Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi *ataria@ataria.eus* helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

FARMAZIAK

MAIATZAK 24, OSTIRALA
TOLOSA
Egunekoa. Edurne Bengoetxea Aiestaran.
Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48.

MAIATZAK 25, LARUNBATA
TOLOSA
Egunekoa. Marta Olarreaga Aramburu.
Martin J. Iraola etorbidea, 10 .
Telefonoa: 943 67 24 38.

MAIATZAK 26, IGANDEA
TOLOSA
Egunekoa. Lourdes Azpiroz Galarza.
Amarotz auzoa, 9.
Telefonoa: 943 67 51 18.

MAIATZAK 27, ASTELEHENA
TOLOSA
Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.
Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.

EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:
TOLOSA • L. Azpiroz Galartza.
Amarotz auzoa, 9.
Tel.: 943 67 51 18.

ATARIA IRRATIA

OSTIRALA
09:00. **Pasahitza** magazina. Iker Ibarluzearen eskutik eguraldia, solasaldi politikoa Martxelo Otamendi eta Joseba Bergaretxerekin. Tolomendiren tartea, Alain Rekondorekin telesail eta zinema proposamenak eta Igor Agirrerekin Galtzaundiren Hitzez Hitz.
11:00. **Hamaiketakoa.** Tolosako berriak.
12:00. **Entzuteko Jaioak.** Musika saioa.
16:00. **Zebrabidea.** Magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.

LARUNBATA
10:00. Trikitia.
14:00. **Hari naizela.** Imanol Artola *Felix*-ek gidatutako bertsolaritza saioa.
16:00. **Entzuteko Jaioak.** Musika saioa.
17:00. **Kokondo.** Musika saioa.
18:00. **Entzuteko Jaioak.** Musika saioa.

IGANDEA
10:00. Asteak utzitako onena.
16:00. **Entzuteko Jaioak.** Musika saioa.
18:00. **Entzuteko Jaioak.** Musika saioa.
20:00. **Hauteskunde gaua.** Hauteskundeetako saio berezia, Joxemi Saizar, Mikel Ozaita eta Onintza Lasarekin.

ASTELEHENA
09:00. **Pasahitza** magazina. Iker Ibarluzearen eskutik eguraldia, asteburuari begirada, Agurtzane Belauntzaranekin bidaia eta Iñaki Zubeldia Kale Kantoitik.
11:00. **Hamaiketakoa.** Alegialdeko berriak.
12:00. **Entzuteko Jaioak.** Musika saioa.
16:00. **Zebrabidea.** Magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.

107.6 fm
www.ataria.eus

28 KANALA

OSTIRALA
13:30. Gaurkoan Tolosaldetik
12:30. 1,2,3 Hemen da Miru
17:30. Gaurkoan Tolosaldetik
21:30. Gaurkoan Tolosaldetik
22:00. Izerditan (Yoseikan Budo)
22:30. Lotsagabe (Stefany Sada)
23:30. Gaurkoan Tolosaldetik

Hemen zure iragarkia joan daiteke

publi@ataria.com
661 678 818

TX

sariduna

Atarikideentzat bi sarrera ditugu

DELTECO GBC - REAL MADID
partida ikusteko
2 sarrera

• Olatz Irazustabarrena (Alegia)

Maiatzaren 26an,
ordua zehazteko, Ilunben.

Ataria jarriko da harremanetan

SAN SEBASTIAN GIPUZKOA BASKET S.A.D.

AURTEN, 4.000 ORDUTIK GORA EMANGO DITUZU PANTAILEI BEGIRA

SCREEN POLLUTION

ZATOZ ETA BABESTU ITZAZU ZURE BEGIAK



San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com

Nabarmentzen naiz, beraz, banaiz.

Audi A1 Sportback berria.
Epic Mode On.

Audi A1 Sportback berria.

Audi A1 Sportback berria epikoa izateko jaio da. Linea gihartsuko diseinua du eta autoa pertsonalizatzeko aukera asko eskaintzen ditu; besteak beste, gurpiletako hagunak aukeratu ahal dira, baita horien kolorea ere. Aginte-mahairen konektagarritasunak eta MMI plus nabigatzailearen ukipen-pantailak berezi egiten dute.

Autowag Tolosa
Usabal industrialdea, z/g
20400 Tolosa
943 67 35 81

Audi A1 Sportback berria 30 TFSI 85 KW (116 CV) 6 vel. CO2 igorpena (g/km): 108tik 111 bitarte. Kontsumoa (l/100km): 4,8tik 4,9ra.